

Herririk Herri | 7

'Gurasolagun', aita-amek eskolako patioan euskaraz berba egin dezaten



Berbaz | 8

Marina Fuster: "Erbestetik Durangora itzultzea ametsa izan zen amarentzat"

Kirola | 16

Europako Radical Masterra irabazteko aukerak ditu Igor Urienek Montmellon

MAÑARIA | 3



Askondoko koba, historiaurreko aztarnak metro karratu batean

Metro karratu bakarrean egindako azterketari etekin handia atera diote Askondoko koban. Bertan aurkitutako margoak duela 25.000 urtekoak dira. Aztarna zaharrenak, berriz, Neanderthal sasoikoak dira.

ABADIÑO | 2

Atxarteko proiektua bertan behera utzi dute Abadiñoako Independienteek

Atxarte eta Atxa Txiki harrobi abandonatueta-
ra AHTaren obretako hondakinak erodateko
proiektua bertan behera utzi du Independien-
teak alderdiak. Jose Luis Navarro alkateak (AI)
azaldu duenez, EAJ eta Bilduren babes barik
ez du proiektuagaz aurrera egingo. Navarrok
proiektua berreskuratze plantzat dauka, eta
oposizioak hondakindegia dela dio.



GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carnicería
autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

Durango | 6

Kooperatiben Konfederazioak jaialdia eratu du azaroaren 11rako

Iurreta | 4

'Munduko paisaiak' ekimenagaz Pakistan ezagutuko dute

Durango | 6

Txakur arrazen txapelketa prestatuko dute domekarako

Abadiño | 2

Uholde arriskua gutxitzeko URAgaz hitzarmena sinatu dute

HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak
@anboto

ABADIÑO

Atxarteko proiektua gelditu egingo dute Independententeek

Alkateak dioenez, EAJren eta Bilduren babes barik ezingo dute harrobia betetzeko lanik egin

Abiadura Handiko Trenaren hondakinak Atxarte eta Atxa Txikiko harrobietara eroateko proiektua bertan behera utzi du Abadiñoko Independententeek alderdiak. Jose Luis Navarro alkateak azaldu duenez, Bilduren eta EAJren babes barik ez doa proiektuagaz aurrera egitera.

Independententeek proiektua AHTaren hondakinak Atxarte eta Atxa Txiki harrobi abandonatuak berreskuratzeko plan baten barruan kokatu zuten. Udaltzite-

plan horrek zabortege bat eraikitzeke asmoa ezkatutuz duela iritzita. Proiektuan ingurumen eraginaren azterketa egitea beharrezkoa irizten dio bai Bilduk eta baita EAJk ere. Harrobien beste berreskuratzeko plan bat posible dela diote Bilduren zinegotzi Aitor Azuetak eta Eneko Etxebarria zinegotzi jeltzaleak. Oposizioa bi alderdiok proiektuaren inguruko mozio bat adosten ari zirenean ezagutu dute Independententeek hartutako erabakia.

Navarro harrobia berreskuratzeko "urrezko aukera" zela adierazi du behin baino gehiagotan. Oraindik ere, iritzi hori duela dioten arren, oposizioaren babes barik ez duela aurrera egingo azaldu du.

Eneko Etxebarriaren berbetan, gobernu taldeak Adifekin batera plan hau arin eta kontrol barik egin gura izan du: "Bilduren birritan batzartu eta gero, hau ez dela gure proiektua transmititu genion alkateari". Aitor Azuetak pozik hartu du gobernu taldearen erabakia. Hala ere, Independententeek alderdiak hasieratik izan duen jarrera kritikatu du: "Betiko jarreragaz proiektua martxan jarri eta abiadura eman dio horrela geldiaraztea zailagoa delako. Sortu den alarma soziala hasieratik ekidin zitekeen". ■ J. Guenetxea

Harrobien beste berreskuratzeko plan bat posible dela diote EAJk eta Bilduk

Elorriora arteko obretan sortutako soberakinak Atxartera eramana gura zituen Adif enpresak, eta Abadiñoko udal gobernuak (Abadiñoko Independententeek alderdiak osatua) ados egon da orain arte. Bilduk eta EAJk bat egin dute



Atxarteko harrobiek 17 urte daramatzate itxita.

ren erabakia. Hala ere, Independententeek alderdiak hasieratik izan duen jarrera kritikatu du: "Betiko jarreragaz proiektua martxan jarri eta abiadura eman dio horrela geldiaraztea zailagoa delako. Sortu den alarma soziala hasieratik ekidin zitekeen". ■ J. Guenetxea

Oposizioak proiektuaren inguruko mozio bat prestatzen ari zirela ezagutu du erabakia

"Ea oraingoan bakean uzten gaituzten"

Mendiolako auzokideek hedabideetan izan dute Atxarteko proiektuaren berri. Proiektua bertan behera gelditu dela eta Jose Luis Agirrek ez zekiela ezer adierazi du. Mendiolako auzo elkarteko kidea da. "Ez dut jakin proiektua bertan behera gelditu denik. Oraingoan ere hedabideek esandakoa da dakidana". Hala ere, albiste "pozik" hartu du Agirrek: "Albiste ona da guretzat. Ea oraingoan bakean uzten gaituzten".

1995etik abandonatuta dauden harrobiak "ugerezz dario" daudela dio Agirrek: "Berreskuratzeko plan bat beharrezkoa da, baina ez esaten zuten moduan hondakinak ekarrita". Atxarten dauden burdinak kendu eta ingurua txukun utzi zitekeela uste dute auzokideek.

Hitzarmena lotu dute URA agentziagaz, uholde arriskua gutxitu asmoz

URAk kanal bi egin eta erreka zabalduko du eta udalak obretarako lurak utziko dizkio

Independententeen eta jeltzaleen aldeko botoekin onartu zuten, martitzeneko udalbatzarrean, Ura- ren Euskadiko Agentziaren (URA) eta Udalaren arteko hitzarmena. Uholde arriskua gutxitzeko hainbat ekintza burutzeko konpromisoa hartu du URA agentziak. Agentzia horrek hartuko du lan horien kostu osoa bere gain. Udalak, bere partetik, lanak egiteko "behar diren lur-arlo guztiak URA agentziaren esku" jarriko ditu.

Uholde arriskua konpondu beharrez ados egon arren, Bildu abstenitu egin zen

Besteak beste, Ibaizabal eta Elorrio ibaiek bat egiten duten lekuan kanal bi egitea, Trañapaduraindustrialdean erreka zabal-

tzea, eta BI-3333 errepidearen alboko presa txikia eta zubia berriro eraikitzea jasotzen du hitzarmenak. Baina, hitzarmenak ez du zehazten lanak egiteko eperik.

Arau subsidiarioak

Herriko zonalde asko urpean gertatzeko arriskuak "paralizatuta" eduki ditu urteetan hiri ordenazioa zehazten duten arau subsidiarioak. Hitzarmen honek jasotzen dituen lanak eginez gero, aldatu egingo litzateke egoera hori.

Uholde arriskuaren arazoa konpondu beharrez ados egon arren, Bildu abstenitu egin zen. Urteetan hirigintza planak baldintzatu dituen urperagarritasun arazoa konponduta, "eszenatoki berri bat" zabaltzen dela eta "erabakiak gehiago hausnartzea" eskatu zuen Saioa Zuazubizkar Bilduko zinegotziak. ■ I.E.

BERRIZ

50 ume baino gehiago hurreratzen dira ludotekara

Antolatzaileek espero baino ume gehiago batzen da duela hilabete sortutako Kalabazan ludotekara

Kultur etxeko hirugarren solairuan ume asko batzen da bi zapatutik behin, Kalabazan ludotekara. Pagotxa aisialdi elkarteak duela hilabete ipini zuen martxan ludotekaren egitasmoa, eta aurreikusitako harrera baino hobea izaten ari dela adierazi dute: 50 umetik gora ibiltzen da ludotekara, zabaltzen duten bakoitzean.

Zapatu honetan izango da ludotekaren hurrengo eguna. Orain arte hurreratu den ume kopurua dela eta, adinaren arabera txandak egitea erabaki dute Pagotxa aisialdi elkarteak kideek: 17:00etatik 18:30era hiru eta bost urte arteko umeentzako egongo

Adinaren arabera txandak egitea erabaki dute Pagotxa aisialdi elkarteak

da ludotekara, eta 18:30etik 20:00etara, sei eta hamaika urte artekoentzat.

Momentu honetan begirale bi dabilta ludotekara lanean. Bilduren zinegotzi Xabi Zalduak adierazi duenez, formatua handitzeko beharra egon daiteke: "Hasieran hogeita hamar inguruko ludotekara geneukan buruan, baina ikusi dugu herrian arrakasta eduki duela ideiak, eta benetan berriztarrentzako premia dela".

Ludotekara eratzeko diru laguntza Bilduren zinegotzien dietetatik etorri da. Kargua hartzekoan, dietak ez kobratzea erabaki zuten zinegotziak, eta diru horretako zati bat herriko proiektuetara bideratzea. Aurtengoan, Pagotxaren Kalabazan ludotekaren egitasmoagaz bat egitea erabaki dute. ■ A.U.

GARAI

Kontainerrak eskatu dituzte San Juan eta Aiartzarako

Udalak edukiontzia berriak eskatu dizkio Garbiker enpresari San Juan eta Aiartzara auzoetan ipintzeko. Plastikoa eta kristala batzeko kontainerrak izango dira. Herrigunean eta auzoetan zabarrak bilduko guneak zelan egokitu aztertu du udalak, eta plan horren baitan eskatu dituzte kontainerrak. Miliku, Barrainku eta Beratu auzoetara ere eragin die planak. Partaidetza foroan aurkeztu zuten uda aurretik.

Horrez gainera, herrigunean ere egin dute aldaketa bat. Orain arte frontoiaren alboan egon den kontainerra, kristala batzeko, Kurutzondora jaitsi dute. Plastikoa ere ipini dute bertan, udal ordezkariak azaldu dutenez. Leku aldaketa egin dute, baina elkarte gastronomikotik hurrean ipini gura izan dituzte, bertatik gauza asko botatzen direlako edukiontzietara. ■ M.O.



MAÑARIA

“Ikerketa aldetik, oso garrantzitsua da Askondo”

Askondo koban 2010ean topatutako irudi eta aztarnen ikerketa amaitu dute, Diego Garate (Plentzia, 36 urte) arkeologoak azaldu duenez

Mañariko Askondo kobazuloan dauden margoak duela 25.000 urteko belaunaldi batekin zituen. Hori ondorioztatu dute Diego Garate eta Joseba Rios arkeologoek. **Espezialisten lan-talde batek 2010ean aurkitutakoa aztertzen ibili dira, eta uste dute argigarria izango dela Kantaurialdeko kobetan agertutako margoak ere datatzeko. Gainera, zundaketa arkeologikoa ere egin dute metro karratu batean. Topatu dituzten aztarna zaharrenak Neanderthalen sasoikoak dira.**

da, eta 24.000 urte dauzka gutxi gora-behera. Datazio hau guretzat oso garrantzitsua da. Honekin jakin ahal dugu noiz margotu zen kobazuloa eta, agian, Kantaurialdean dauden antzeko leizeak noiz margotu ziren ere bai. Izan ere, adituen artean arazoak dauzka koba horietako irudiak zein kronologiakoak diren jakiteko, burdin oxidoz egin zirenez ezin dira eta karbono 14 bidez datatu. 18.000 eta 28.000 urte artean kokatzen ditugu, baina zehaztasun esparru handiegia da. Altamiran bertan badaude Askondon bezalako zaldiak. Askondon bezala, han ere sarrera alboan daude, eta gorriak eta oso handiak dira. Ikerketa aldetik, oso garrantzitsua da Askondo.

Orban eta puntu piloa baita ere. Gehienbat sarreratik gertu; sarre-rra alboan egindako dekorazio bat zen. Ia egunaren argia heltzen da.

Bertan bizi izan zirela frogatu duzue.

Gutxienez, bost sasoitan erabili zen bizitzeko. Neanderthalen erraminten aztarnak dira aurkitutako zaharrenak, 40.000 urte baino gehiagokoak. Animalien hezur-erak ere topatu ditugu, batez ere hartzaerenak. Europara heldu ziren Homo sapiens lehenengo belaunaldiaren arrastoak ere badaude; Bizkaian horrelako gutxi dago. Duela 25.000 urteko okupazio bat ere identifikatu dugu. Zenbait hezur-tresna topatu ditugu. Gure ustez, hau da margoak egin zituen belaunaldia. Duela 17.000 urte beste okupazio bat egon zen, eta orain 3.000 urte hilobi legez erabiltzen zen.

Azterketa zabaldu ahalko da?

Posible da gu lanean ibilitako lekua garrantzitsuena ez izatea. Segururik, aztarnategi inportantea gaur egun harrobia dagoen lekuan zegoen. Edozelan ere,



Ze emaitza nagusi eduki du zuen ikerketak?

Askondon irudi kopuru txikia dago, beste batzuekin alderatuta, eta txarto kontserbatuta daude. Baina, zientifikoontzat oso garrantzitsua da. Datazio bat egin dugu. Lehenengo miaketan hezur bat topatu genuen horman sartuta. Bada, hezur hori orein hezurra

Irudi berriak ere topatu dituzue.

Bi arlo zeuden proiektuaren baitan: hormen miaketa eta zundaketa arkeologikoa. Bagenekien barruan margoak zeudela, baina ez genekien han bizi izan ziren ala ez. Miaketa egitean, irudi berriak aurkitu ditugu. Guztira, hamar bat zaldiren irudiak, esku batena eta trazu paralelo bat daude.

metro karratu batean topatu dugu hau guztia. Gurea zundaketa bat izan da, eta indusketa zabal bat egiten bada 6-8 metrokoa, imajina ezazu: aztarnak ez dakit zenbatetan biderkatuko diren. Onena izango litzateke proiektua aurrera eratea, baina antolakuntza eta dirulaguntza aldetik nahiko konplexua da. Behintzat, artea badago guztiz aztertuta, badakigu zer zegoen eta datazioa daukagu. Aztarnategia ere hor egongo da norbaitek beste proiektu bat egin gura badu.

Herritarrek edukiko al dute aukera Askondoko balioa ezagutzeko?

Leku estua da eta mugimendu arraro bat eginez gero izugarriko kaltea sortu ahal duzu. Ez da batere gomendagarria jendea zabaltzea. Pena izango litzateke 25.000 urte iraun duena guk hondatzea. Guztia dokumentatu dugunez, erakusketak egitea posible izango da, eta berbaldiak seguru egingo ditugu. Liburu bat ere publikatu dugu laster ikerketaren ondorioak sakon azaltzeko. ■ M. Onaindia

Internet, inor iristen ez den lekuan



eurona
SAT

Satelite bidezko Internet handi zabala

Dena da abantaila

- Internet etxeetan ADSL estaldura barik
- ADSLren abiadura berbera edo handiagoa
- Zure konexio arazoentzako soluzioa
- Lurraldearen %100 estaldura

Ezagutu satellite bidezko Interneten abantailak

- Ez du telefono haririk behar
- Ordenagailuak ez du gutxienez ezaugarri behar
- Bezeroari arreta zerbitzu pertsonalizatua
- Ahotsaren tarifa-laua aukeran

€ Etxeetarako tarifak

	Gehien kontratatutakoa			
	SATELITE8	SATELITE12	SATELITE18	SATELITE18 MAX
Abiadura jaits.	8Mbps	12Mbps	18Mbps	18Mbps
Abiadura igotzen	2Mbps	4Mbps	6Mbps	6Mbps
Datu muga ^{1,2}	8GB	16GB	26GB	50GB
Alta	Doan	Doan	Doan	Doan
Ekipoa ³	Doan	Doan	Doan	Doan
Instalazioa	99€	99€	99€	99€
Kuota/hileko ⁴	33,90€	46,90€	59,90€	99€
Iraupena ⁵	18 hilabete	18 hilabete	18 hilabete	18 hilabete

**Tarifa berriak!
Orain Internet
gehiago
prezio berean**

1- Behin datu kontsumo maximoa gaindituta, abiadura 128Kbps-ra jaisten da. Erda gainditzean baliteke puntualki jaltzea, satelitearen kongestioaren arabera.
 2- Jaisotako datu kopuru maximoa hileko berrazarriko da, aktibazio datatik hasita.
 3- Euronak kontratuak haurten duen bitartean ekipoa (500 eurotan baloratua) duan satein itxi. Behin kontratua bukatuta itzuli egin behar da.
 4- BEZ gabe.
 5- Iraupen demoriarik mugatutako kontratua.

Instalazio erraza

- 48 orduan, Euronaren banatzaile ofizial baten bidez
- Erraz eta azkar
- Ez du software gehigarri behar

info + 900 850 808

www.eurona.net

DIURRETA

Pakistanera begira egongo da liburutegia bi astean

'Munduko Paisaiak: liburutegiak topaleku' ekimenaren eskutik



Egitarau zabala eratu dute herri bibliotekak eta udalak, hainbat elkartegaz batera. A. Basauri

Pakistango errealitatera hurbildu eta apur bat gehiago ezagutzeko aukera izango dute lurretan azaroaren 5etik 16ra, *Munduko Paisaiak: liburutegiak topaleku* ekimenaren eskutik.

Liburutegien Nazioarteko Egunaren bueltan sortutako ekimena da, eta Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzuak laugarrenez gonbidatu du lurretako biblioteka bertan parte hartzera (hamar

Felix Baltistan Fundazioari laguntzeko borondatea eskatuko dute

liburutegi aukeratzen ditu Jaurlaritzak). Tolerantzia eta integrazio kulturala bultzatzea da helburua, Iñaki Totarikaguena alkateak adierazi duenez.

Udalak eta herri bibliotekak, herriko hainbat elkartegaz bate-

ra eratu dute egitaraua, eta Felix Baltistan Fundazioaren laguntza ere izan dute, Pakistanen beharrezko diren fundazio bat. Hitzaldiak, zine-kluba, gazteekin saioak, literatura solasaldiak eta kontalariak egongo dira, baita Elkartasun Mendi Ibilaldia ere. Anderebide, Kimuak, Zaldai eta Maiztegi herri eskolako Guraso Elkarte aritu dira ibilbidea presatzen. Ibarretxe kultur etxean edo www.zaldaimenditaldea.org webgunean eman daiteke izena azaroaren 8ra arte. Bestela, egunean bertan, 08:15etik aurrera.

Auzo eta leku ezagunenetatik egingo dute ibilbidea, eta Felix Baltistan Fundazioari laguntzeko borondatea eskatuko dute, Pakistanen lanean jarraitzeko. Parte hartzera eta itsulapikoa betetzera deitu dute. Umeentzat, ibilbide laburragoa prestatu dute; baita munduko jolasak ere, Santa Mañan. ■ A. Basauri

Egitaraua

Azaroak 5etik 16ra, erakusketa: Pakistango funts bibliografikoak eta argazkiak.

Azaroak 6 (19:00), berbaldia: *Bidaiatzeko beste era bat, Pakistanera begira* (J. Iztueta).

Azaroak 7, (19:00), berbaldia: *Ingeniaritza humanoa eta generoa Pakistanen* (A. Bizkarra).

Azaroak 8 (19:00), Zinekluba: *El silencio del agua* (S. Namur).

Azaroak 9, DBH4ko ikasleekin: *Energia berriztagarriak eta kooperazioa Pakistanen*.

Azaroak 11 (09:00), ibilaldia: www.zaldaimenditaldea.org

Azaroak 13 (18:30), literatur solasaldia: *Sombras quemadas* (K. Shansie).

Azaroak 14 (19:00), literatur solasaldia: *Iqbalen historia* (F. D' Adamo).

Azaroak 16, ipuin kontalaria: Maider Galarza. Hiru-bost urte (17:30), bostetik gora (18:00) eta helduentzat (20:00).

Bakea eta Bizikidetzatza txostena batzen duen testua onartu dute

EAJren mozioa onartu dute, PSE-EEren eta PPren aldeko botoekin

Migel Angel Blancoren hilketaren gaitzespenik "sendoena" eta ETAren "jarduera kriminal guztia" gaitzesten duen mozioa onartu du udalak. Jaurlaritzaren Bakea eta Bizikidetzatza txostenaren edukiekin egiten du bat idatziak, "bake integrala eta bizikidetzatza demokratikoa bilatzeko konpromisoa berretsiz". EAJk aurkeztutako mozioaren alde egin dute PSE-EE eta PPK.

Abstenitu egin da Bildu. Aieteren adierazpena bere egiten duen

Aieteren adierazpena bere egiten duen testua aurkeztu du Bilduk

testu "osatuagoa" aurkeztu eta hori defendatu du. Gainera, Blancoren "atentatu bidezko heriotzaren aurrean atsekabe zintzo eta sentikorrena" ere jaso dute. "Atzera begiratu gura dugu aurrera jarraitzeko; egindako kalteak konpondu eta irtenbideak topatzeko".

Mozio hori ez dute onartu. PPK ere aurrera egin ez duen mozioa aurkeztu du, "Blancoren hilketak eta, hedaturaz, ETA erakunde terroristak burututako jarduera kriminal guztia" gaitzestea eskatuz. ETARI berehala desegitea exijitzea ere jasotzen du. Bildu eta EAJ abstenidu egin dira, eta, PSE-EEK kontra egin du: "Hilketak gaitzetsi arren, Bakea eta Bizikidetzatza txostena da balizkoena". EAJ abstenitu egin da besteen mozioetan, zatiekin bakarrik egon delako ados. ■ A. B.

ZALDIBAR

Astelehen iluntzetan, Tai Chia egitera Gaztetxera

Tai Chi arte martziala ezagutzeko aukera izango dute ikastaroan parte hartzera animatzen direnek

Tai Chia praktikatzeko leku bilakatu dute ikasturte honetan Zaldibarko Gaztetxea. Txinako arte martzial tradizional hori, gaur egun mundu osora zabaldu dena, ezagutu ahal dute interesa duten zaldibartar guztiak, astero-ko hitzorduetan. Tai Chi ariketa fisiko-espiritualaren oinarritzko ezagutza emango diete ikastaroa hurreratzeko direnei.

Orain arte egin dituzten saioetan lau lagun inguru batu direla azaldu dute Gaztetxeko

kideek, baina zabalik dauzkate ateak. Tai Chia zer den ikusi eta probatu gura duten guztiak aukera zabala eskaintzen dute.

Astelehenetan, 19:30etatik 20:30era batzen dira Zaldibarko Gaztetxean Tai Chi Chuan ikastaroan aritzeko. ■ I.E.

Tai Chi ariketa fisiko-espiritualaren oinarritzko ezagutza emango dute

ATXONDO

Arrazolan hasiko dute auzo batzarren erronda azaroaren 10ean

Guztira bost batzar egingo dituzte azaroan zehar eta udal aurrekontuetarako iritziak jasoko dituzte

Auzoetako errealitatea bertatik bertara ezagutzeko bost auzo batzar egingo ditu udalak azaroan zehar. Auzotarren premiak eta kezkek entzuteaz batera, udalaren aurrekontuen gaineko xehetasunak azaldu eta horren gaineko herritarren iritziak jasoko dituzte, aurrekontuak modu parte-hartzailean osatzeko asmoz.

Batzarretako lehenengoa azaroaren 10ean, 10:00etan, egingo dute Arrazolako ludotekan. Bigarrena azaroaren 17an, 10:00etan, izango da Axpen.

Gainerako hiru batzarrek Apatan egingo dira hilaren 20an,

Apatako herritarrak zonaldeka deituko dituzte azaroaren 20, 21 eta 22an

21ean eta 22an. Hiru batzarrek 18:30ean hasiko dira, baina oraindik ez dute erabaki non egin.

Apatako herritarrak zonaldeka deituko dituzte. Azaroaren 20rako Hirubide, Markoia eta inguru hartako baserrietako biztanleak daude deitua. Hilaren 21ean, errepidetik Ziarreta alde-ranzko etxeetan bizi direnekin egingo dute batzarra. Azkenik, hilaren 22an errepidetik udaletxe aldera bizi direnak batuko dira.

Arrazolako eta Axpeko batzarretan Amankomunazgoak zabor ontziak zelan berrantolatu gura dituen ere azalduko dute. Dena dela, azaroaren 27an Arrazolan eta 28an Axpen (18:30ean), beste batzar bana egingo dute Amankomunazgoko ordezkariekin, xehetasun denak azaltzeko. ■ J.D.

ELORRIO

Azpikoerrotan azterketa hidraulikoa egingo dute


Ingurua urbanizatuko dutela-eta, erreka-urek gainezka egiteko duten arriskua ikertuko dute

Elorrioko Udala hirigintzako plan berezia egiten ari da Goieta auzorako. Bertan, Azpikoerrotan ingurua, erreka pasatzen da eta azterketa hidraulikoa egingo dute. Joseba Mujika alkateordeak azaldu duenez, Lurzoruaren Legeak ingurugiroa kontuan hartzera behartzen ditu, eta horren harira derrigortuta daude azterketa hidraulikoa egiteko. Mujikaren

esanetan, ingurunearen urbanizazioa dela-eta, erreka-urek gainezka egiteko duten arriskua ikertuko dute, besteak beste.

Urbanizatzen denean, arazoak sortu ez daitezkeen, hartu beharko diren neurriak ere zintzuk diren jakiten lagunduko die azterketa hidraulikoak. Udalak 10.255 euro erabiliko ditu azterketa egiteko. ■ M. O.

Jatetxe gida



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta
martitzen gauetan itxita.



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Elorrioko Batzokia

Urarka 13, Elorrio
Tel.: 94 658 32 18

Gosariak. Pintxoak.
Eguneko menua. Asteburuko menuak.
Plater konbinatuak, bokatak, pizzak.
Pintxo kateringua. Zorion askariak.

batzokielorrio www.batzokielorrio.com



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik
ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak
enkarguz.
Espezialitatea: Txuleta errea.

DURANGO

“Jai erraldoiagaz” erakutsiko dute kooperatiben eredua

Egoeraz galdetuta, kooperatibak 2009tik aurrera igotzen joan direla diote



Hostoak ikuskizuna eskainiko dute Amaren Alabek, Kukai dantza taldeak eta Oreka TX-ek.

Aurtengoa kooperatiben nazioarteko urtea dela-eta, jaialdia eratu du Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak. Durangon egingo dute, hurrengo domekan, azaroaren 11n. Landako Gunean eta Plateruena kafe antzokian kooperatibek eurek sortutako hamaika ekitaldi egingo dituzte. Javier Goienetxea konfederazioko lehendakariak esan du urtean zehar mintegiak eta antzeko ekitaldiak garatu dituztela, eta amaitzeko jai giroko zeezer egitea

Goienetxea: “Krisi sasoiaren hazkundea eduki duen enpresa-formula bakarra gara”

pentsatu dutela: “Gure mundua ezagutzera emateko jai erraldoi bat muntatu gura dugu”. Beste era bateko ekimena, beste eredu bat aurkezteko. Izan ere, gauzak beste modu batera eginda, kooperatibek mundu hobea eraikitzen

dutela uste dute. “Pertsonari ematen diogu lehentasuna, kapitalaren eta emaitzen aurretik”.

Kooperatiben osasunaz galdetuta, 2009tik aurrera igotzen joan direla dio Goienetxeak: “Krisi sasoiaren hazkundea eduki duen enpresa-formula bakarra gara”. Euskal Herria kooperatiben sektorean mundu mailako erreferentzia dela adierazi du. Lana banatzea eta beharginak bazkide eta jabe izatea ei dira faktore bereizgarriak. ■ Markel Onaindia

MALLABIA

Euriari aurre eginez, Urriko jaiek hainbat lagun batu dituzte

Bariku eta zapatu gauean botatako zaparradek ez zuten kontzertuetako publikoa beldurtu



Bertsolariekin hasi zituzten jaiak Mallabian.

Urriko jaietan euria bisitari desatsegina izan ohi da. Aurten ere, jaien hasieratik bukaerara zaparradek ez dute etenik izan. Hala ere, antolatzaileek azaldu dutenez, mallabiarrek jaietako ekitaldietan “dezenete” parte hartu dute. Mila Mondragon alkatearen berbatan, “barikuan, oilasko errea baserriko ogiagaz jaten eta Damu Dot eta Bostenbor taldeen kontzertuak entzuten, jende ugari etorri zen, botatzen zuen euri zaparradak kikildu barik”.

Goiuria kulturgunean izango dira eta 31ra arte dago izena emateko aukera

Zapatuko kontzertuak ziren jai egitarauko plater nagusia. Eguraldi zakarrari aurre egin zionik izan zen Mallabian: “Kontzertuak entzuten bapo aguantatu zuten trumoi hotsak eta txingor eta euri zaparradetatik txosnetan babes-tuta”. Kokein, Governors eta Bizar-dunak taldeek jo zuten taula gainean. Iheskide taldeko kide bat gaitxo zela-eta ez ziren Mallabiko kontzertuetara joan. Jaietako amaiera emateko txokolate bero-beroa hartu zuten. ■ J.G.

EGITARAUA

LANDAKO GUNEAN

10:30ean, Ate irekiera. Haurrentzako tailerrak (Jugativos Koop. E.). Nekazari-elikagaien kooperatiba azoka. Lehiaketa artistikoaren erakusketa (Erkide-Irakaskuntza). Puzgarriak.

11:00etan, Ipuin kontalaria (Autu Mautu Koop. E. Txikia).

11:15etan, Ludoteka sortzaila (Garaion Koop. E. Txikia).

11:30ean, Gosaria (Kaiku Koop. E.).

12:00etan, Haurrentzako antzerkia. *Irrien Lagunekin kanta eta dantza*.

12:30ean, Mus txapelketako final-laurden eta finalerdiak.

13:30etik 15:30era, Herri bazkaria. (Ausolan).

16:00etan, *Mediopelo* antzez-lana. (Ganso & Cia S.Coop. Pequeña).

16:00etan, Mus txapelketako finala.

18:00etan, DJ Oihan Vega.

PLATERUENEAN

17:00etan, *Hostoak* ikuskizuna. (Txalap. Art Ekoizpenak Koop. E. Txikia).

18:30ean, Mus txapelketako sari-banaketa eta Eroski Bidaiek-en zozketa.

Txakur arrazen erakusketa eta sariketa egingo dute Landakon

Nazioarteko txakur erakusketa egingo dute etzi Landako Gunean. Bizkaiko txakur elkar-teak antolatu du ekimena, eta Europa osotik etorritako 1.000 txakur inguruk parte hartuko dute. Izan ere, lehiaketa egingo dute bertan, eta nazioarte mailan puntuagarria izango da. Antolatzaileek azaldu dute arrazaren purutasuna ezinbestekoa izango dela lehiarako. Gainera, txapelketaren bidez txakurren arrazak babestu gura dituzte. Herritar guztiei zabalduzako ekitaldia da, eta txakur arrazak ezagutzera emateko baliatuko dute.

Europa osotik etorritako 1.000 txakur inguruk parte hartuko dute

47. aldia beteko du erakusketa honek. Horietatik bederatzitan egon dira Durangon, eta aurten ere jendea batu gura dute antolatzaileek. “Familia osoarentzako plana da”, adierazi dute elkarteko kideek. Goizeko 09:30ean hasiko da erakusketa, eta iluntzera arte iraungo du. Lehiaketaz gainera, desfileak eta txakurrentzako ileapaindegia egingo dira, besteak beste. Nagusiek bost euro ordaindu beharko dute sartzeko, eta umeei hiru. Antolatzaileek esan dute ikuskitzuna handia izango dela. ■ M. O.

OTXANDIO

Neberaren teilatua auzolanean konpondu dute

Joan zen astean amaitu zuten neberaren teilatua konpontzea. Auzolanean elkartu zen zortzi lagun inguruko taldea eta laubost egunean aritu dira lanean. Teilatua erdia altza eta apurtuta zeuden teilatua konpondu dituz-

te. Beste aldean, berriz, solte zeuden teilatua atondu dituzte. Tomi Agirre otxandiarrak auzolanean taldean parte hartu du: “Oso ondo konpondu gara. Bost edo sei finkoak izan gara eta beste batzuek erelagundu digute”. Orain, neberaren ingurua atondu gura dute urarentzako kanala ipinita.

Lanean ari direnean beste konponketa batzuei buruz ere berba egiten ei dute, baina oraindik ez dute ezer zehaztu. “Mekolera eta Oletako kaltzadak izan daitezke; ikusiko dugu”. ■ J.G.

IZURTZA

Irisgarritasun plana herritarren ekarpenekin osatuko dute

Izurtzako Udala irisgarritasun plana diseinatzen ari da eta horretarako herritarren ekarpenak ere jaso gura dituzte. Bide horretatik, azaroaren 13rako, 19:00etan, herri batzarra deitu dute.

Irisgarritasuna pertsona batek bere ingurua ezagutzeko eta espazio horretan mugitzeko duen aukera da. Espazio bat irisgarria dela esateko, pertsona guztiek bertara segurtasunez eta oztopo gabe iristeko aukera egon behar da. Azaroaren 13ko batzarrean herritarrek euren iritzia eman eta herrian ikusitako gabeziak (espazio publikoan, eraikinetan, garraioan...) jakinarazteko modua izango dute. Ostean, lehentasunak markatuko dituzte. ■ J.D.



Durungaldean labor

Montorreta trafikoari irekita, Abadiñorako noranzkoan

Durangoko Montorreta kalea trafikoari zabalik dago asteon. Momentuz noranzko bakarrean erabili ahal-ko dute auto gidariak, Abadiñorantz. Beraz, Durangotik irteteko balioko du. Otsailean itxi zuten guztiz kalea, Faustegoiaren urbanizazioaren eraginez. 2011ko maiatzetik ere noranzko bakarrean ibili ahal zen bakarrik. Bestalde, kanposanturako oinezkoen sarbidea ere zabalik dago, asfaltatu eta gero.

Erosketak euskaraz egin dituztenen artean, tablet-a

Durangoko 250 komertzio *Salerosketak* be, euskeraz kanpainan parte hartu dute. Erosketak euskaraz egiten dituztenak saritzea dute helburu eta hile birik behin tablet baten zozketa egingo dute. Lehenengoan, 32.851 izan da zozketa baki saritua; Ayuka Design komertzioan banatu dute. Ordezkoa 19.152 da, Adolfo Dimenguez denda saldua. 35.000 txartel banatu dituzte.

Ur-hornidura berriko lanak Orozketan

2013rako Orozketan edateko ur-hornikuntza sare berria edukiko dute. Durangoko eta Iurretako sareak batzen diren lekutik Gibelego biltegiraino (Orozketan) berri behar dute sare, eta horregatik bi fasetan egingo dituzte lanak. Lehen fasea adjudikatu du udalak, 233.935 eurotan.

Domekan margo lehiaketa Otxandion

Domeka goizean XXIV. Margo Lehiaketa egingo dute Otxandion. 09:00etatik 10:00etara Bolalekura eroan behar dira euskarriak zigilatzerara, eta 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dira lanak, leku berean. Hiru sari eta herriko lehenengoaren saria emango dituzte.

DURANGALDEA

'Gurasolagun', patio orduetan ere elkarri euskaraz hitz egiteko

Euskara praktikatzeko 'Berbalagun' programagaz, eskualde osora zabalduko dute eskaintza berria

Euskaraz berba egiteko aukera eta gunea ematen ditu *Berbalagun* mintzapraktika programak. Hamabi urte dira lehenengo taldea sortu zenetik, eta aurten ere izango du eskaintza Durungaldean. Gainera, berrikuntza bat dakar: *Gurasolagun* sortu dute. Aitek eta amek eskolako patioetan pasatzen duten deboran euskaraz berba egiteko ekimena da. AEKko irakasle Zior-tza Aldekoa-Otalorak azaldu du guraso euskaldun askok euren artean ez dutela euskara erabiltzen. Zuzenean izan ez arren, gurasoak erdaraz entzuteak umeengan eragina daukela uste dute. "Gurasoek daukate euskararen transmisioan erantzukizun handiena". Iaz egon ei zen antzeko esperientziren bat

eskualean, baina aurten Durungaldeko eskola guztietan egingo dute gurasoen berba-taldeak sortzeko ahalegina.

Iaz 212 lagunek parte hartu zuten *Berbalagun* programan, eta oraingoan ere kopuru horren buel-tan ibiltzea aurreikusitua da. Taldeko solasaldiei buruz jardun du Aldekoa-Otalorak: "Ikasi egiten da, baina ez dira klaseak". Apuntatzeko interesa daukatenek, durungaldea@ae.org helbidera idatzi ahal dute.

Erabileran eragiteko tresna AEK euskaltegiak gainera, Amankomunazgoak, udaletako euskara sailek, Durangoko Udal Euskaltegiak, Hizkuntza Eskolak eta euskara elkarteek bultzatu dute.



Ekzerretik eskumara, Aldekoa-Otalora eta Zarrabeitia, astelehenero prentsaurrekoan.

Amankomunazgoak 6.500 euro inbertituz lagunduko du; publizitate egingo du eta tailer osagarriak garatuko ditu. Oskar Zarrabeitia presidentea adierazi du Durungaldea euskalduna dela, bai

Eskola guztietan egingo dute gurasoen berba-taldeak sortzeko ahalegina

na gabeziak daudela eta horrelako programak bultzatu behar direla. *Berbalagun*-i balioa eman dio: "Euskal komunitatea sendotzeko eta euskararen erabileran eragiteko tresna da". ■ M.Onaindia.

Domu Santu, hildakoak gogoratzeko eguna

Hilerriek goizetik iluntzera arte zabalduta zizuten atzo atek, hildakoak omendu ahal izateko



Iurretako kanposantua lorez beteta.

Hildakoak gogora ekartzeko eguna ospatu zuten atzo Durungaldean. Askok eta asko dira hilerrietara bisita egiteko ohiturari eusten diotenak. Goizetik gauera arte hilerriak zabalik egon ziren atzo, bisitarien senitartekoei loreak eskaintzeko. Joandako senide eta lagu-

Aste osoan zehar hainbat lagun ibili da kanposantu inguruak apaintzen

nen hilobi eta inguruak atontzen dira azaroaren lehenengo eguneko. Gehienek, baina, prestaketa lanak aurreko asterako uzten dituzte. Aste osoan zehar hainbat lagun ibili da kanposantu inguruak apaintzen. Ezohiko itxura hartzen dute egunotan hilerriek lorez jantzita. ■ J.G.

Bizkaibuserako 'GazteTrans' txartela eskatu du Bilduk

Leioara deskonturik ez egitea kritikatu du Bilduk; Durungaldeko ikasleak dira kaltetuenak

Bilduk Bizkaibuserako *GazteTrans* txartela sortzea eskatu du Batzar Nagusietan, ikasleei lagundu eta garraio publikoa bultzatzeko. Esaterako, koalizioak kritikatu du Bizkaibusek Leioako EHUren kanpuserako ez duela bonorik edo deskonturik ematen. Eta kaltetuenak, urrunen egonda gehien ordain-

Txartela sortzea onartu dute, Bilduren aldeko botoekin eta gainerako abstentzioagaz

tzen dutelako, Durungaldeko ikasleak dira. Zaldibartik, esaterako, 48 euro ordaintzen dute hileroko *Creditrans* txartelagaz, eta 64 txartel barik. Bilbotik, 22 eta 27 euro artean ordaintzen dute. Bizkaian tarifa bateratua ipintzea ere gura du Bilduk, bidai baten autobus bat baino gehiago hartzen dutenak kontuan hartuta.

Txartela sortzea onartu dute, Bilduren aldeko botoekin eta gainerako abstentzioagaz. Baina, 2006an ere onartu zuten eta azkenean ez zuen aurrera egin. ■ M.O.

ALBERDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela
Aurretiaz prestatutako janariak
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

El Jefe del REQUINOS CONCURSO MUNDIAL DE MORELLAS BENEFANAS
ODOLOSTETAN GAILEN - 2009
Eminencia en la elaboración de Morellas
Alberdi Harategia

ALBERDI
prekozinatua

BERBAZ>

“Bizitza besteen alde lan egiten pasatu zuten, euren burua arriskatzen”

Frantzian erbesteratuta borrokan jardun zuen bizitza osoa Benita Uribarrena Bollain durangarrak; haren kronika egin du alabak



Marina Fuster Uribarrena•

- Frankismotik erbersteratutako gurasoen alaba
- Bere amak erresistentzian egindako lana kontatu du Agurrik Gabeak ekitaldian

estutu zuten. Amamak sendo eutsi zion, eta Durangoko lehen hileta zibila izan zen aititarena. Treenbideetako langile guztiak joan ziren, eta euretako batek lurrean beroki bat ipini zuen familiarentzako dirua batzeko; diru horrekin bi hilabetez bizi ahal izan ziren. Amak beraz ez zeukan loturarik Durangogaz. 1989an ekarri genuen senarrak eta nik. Etxea erakutsi zigun eta oso hunkigarria izan zen. Pena aita gaixorik ipini zela egun horretan eta Frantziara bueltatu behar izan genuela. Egun bakarra izan zen, baina amarentzat Durangora bueltatzea amets bat bezalakoa izan zen.

Agurrik Gabeak ekitaldian emakumeen papera ezkutatu egin dela nabarmendu dute.

Egia da. Nik erbesteko lana eza gutzen dut. Ama emakume elkarteko kide bat zen, eta borrokan ibili ziren presoentzako dirua batzen, janaria eta erropa lortzen... Emakumeak erbestean integratzeko lana egiten zuten, jabekuntza eta askatasuna landuz. Emigranteen bizimodua gogorra da. Beti zuten bueltatzeko itxaropena, eta bitartean han bizimodua aurrera atera behar zuten eta bazterketa pairatzen genuen.

Bizitako gauza guztiak gogortu egin zuten ama?

Neba-arreba guztiak ausardia handia izan dutela uste dut. Bizitza besteen alde lan egiten pasatu zuten, euren burua arriskatzen. Behin, heriotz zigorra zuten euskaldun bi ateratzera etorri zen ama, eta trenean, senar-emazte horiekin zegoela guardia zibil bat etorri zen. Pasaporteak eskatu eta ama durangarra zela ikusi zuen. Bera ere Durangokoa zen; jesarri eta bidaia osoa amaren ondoan pasatu zuen. Parean zeuden heriotz zigorrera kondenatutako presoak. Aparteko gauza asko bizi izan zituen. ■ A.Ugalde.

Durangoko bonbardaketaren ostean Benita Uribarrena Bollain erbestera joan zen, Frantziara. Bere alabak, Marina Fuster Uribarrenak, amaren bizitza kontatu du: Frantzian nazien kontrako erresistentzian borrokatu zuen eta alderdi komunistako kide izan zen klandestinitatean. Durango 1936 elkarteak antolatutako Agurrik Gabeak ekitaldian parte hartu du alabak. Ekitaldian, andre faxismoaren kontra egindako lan isildua omendu dute.

Zelako bizimodua zuen zure amaren familiak Durangon?

Aitita trenbideetako langilea zen eta amamak Ezkurdiko kioskoan egunkariak saltzen zituen. Oso ezaguna zen, Benita kazetaria deitzen zioten. Nahiko errepublikazalea zen amama, idazten eta irakurtzen zekien, orduko andra gutxi bezala. Nire ama lau seme-alabetatik gazteena zen. 1937an Durango bonbardatu zutenean hamabost urte zituen. Bonbardaketaren ostean

“Egun batzuetan amak 40 kafe ere egiten zituen errefuxiatuentzat”

Frantziara ebakuatu zituzten ama, amama eta amaren ahizpa bat. Frantziara barkuan heldu zenean ezer barik eta zapata batekin heldu zela kontatzen zuen beti amak.

Frantzian nazien kontrako erresistentzian ibili zen ama.

Tartean preso egon zen Perpignan, askatu zuten... Erresistentziako zuzendaritzako emakume bakarra izan zen. Gerra amaituta, han egindako lanagatik domina eman zioten. Bizitza guztian jardun zuen erresistentzian.

Errefuxiatuentzako harrera etxe bat izan zuten zure gurasoek.

Gure aitagaz ezkondu zen, eta aita errefuxiatu politikoa valentziarra zen. 1950ko hamarkadan Frantziako Gobernuak oso gogor jokatzeko zuen Espainiako

erbesteratuekin, debekatu egiten zieten mugatik gertu bizitzea. Iparralderago joan behar izan zuten bizitzera, Vacluseko departamentura. Han Carpentresen Espainiatik joandako errefuxiatuak hartzen zituzten. Egun batzuetan amak berrogei kafe ere egiten zituen errefuxiatuentzako. Nire neba eta ni han jaio ginen.

Geroago Ekialdeko Pirinioetara bueltatu eta klandestinitatean lan asko egin zuen. Zelan bizi zenuten hori etxean?

Amaren bizitza beti izan da borrokarako bizitza, klandestinitatean Espainiako alderdi komunistan. Txikitan ez ginen arriskuak konturatzen, baina bidaia asko egiten zituen Espainian arriskuan zegoen jendea Frantziara eroateko: presoak, heriotz zigorrera kondenatutako jendea... Informazioa eroaten zuen, dirua presoentzako... PCE ilegalak zen Frantziako klandestinitatean egiten zuten lan. Mitinak egin eta diru-iturriak batzeko ekitaldiak antolatze mugitzen ziren. Familia osoa zegoen inplikaturik. Denbora laburrean gerra bi bizi izan zituzten, eta oso gogorra da hori.

Gurean berba asko egiten zen askatasunaren aldeko borroka eta diktaduraren kontra. Konturatu naiz hemen isiltasun handia egon dela; belaunaldi bi behar izan dira gauza horietaz berba egiteko.

Amak Durangogaz hartueman mantendu zuen?

Egun baten bakarrik bueltatu zen. Amak hemen ez zeukan familiarik, aititaren Uribarrena familiagaz hartuemanak eten zituelako. Familia karlistakoa zen nire aitita. Trenbideetako langilea izanda, langile eta sindikalista kontzientzia zeukan. 1934an errekan armak ezkutatu zituen, eta salaketa baten ostean, polizia armak aterarazi zizkion. Abenduaren 30a zen, eta hotzak jota hil zen. Amamak ez zuen gura hileta elizkizunik egitea. Presio asko izan zituen, gotzainak eta familiak gogor

“Amarentzat Durangora bueltatzea amets bat bezalakoa izan zen”

@anbotokultura

KULTURA[>]

MUSIKA > ZIKLOA

Lau eguen, Kantuaren Kantoian elkartzeko

Lau musikari etorriko dira zikloaren laugarren ediziora; disko berria aurkezten aritutako bi eta zuzenekoetatik aldenduta ibili diren beste bi

Laugarren aldia da Durangoko Plateruenean Kantuaren Kantoia zikloa antolatuta dutena. Aurreko hiru edizioetan bezala, udazkenean, azaroko lau eguen iluntzetan batuko dira musikariak eta musika zaleak.

Aurten azken diskoak aurkezten ibili diren abeslari bi, eta hainbat urte oholtzetatik aldenduta egon diren beste bi ariko dira Kantuaren Kantoian: Xabier Montoiak, Ruper Ordorika, Josu Zabala eta Balerdi Balerdi taldeko Toño Muro.

Jonan Hernandez
kazetariaren galderek
bideratuko dituzte saioak

Xabier Montoiak zabalduko du aurtengo zikloa. Aurreko edizio bietan legez, Jonan Hernandez kazetari durangarraren galderek bideratuko dituzte Platerueneko Kantuaren Kantoia zikloaren lau saioak. Elkarrizketa formatua dute

saioek, eta azalpenak eta kantak tartekatuko dituzte.

Bandagaz jardutera ohituta daude lau musikariok, baina formatu intimoagoan entzuteko aukera izango da Plateruenean. "Taldearen laguntza gabe aritzeak erantzunkizun handia" sortzen diola esan du, esaterako, Balerdi Balerdi taldeko Toño Murok. Hamarkada bat igaro da Balerdi Balerdi taldea desegin zenetik, baina disko berria daukate Murok eta taldekideek eskuartean.

Laugarren aldia da
Plateruenean Kantuaren
Kantoia egingo dutena

Iaz bete-bete egin zen Plateruena. Berri Txarrak taldeko Gorka Urbizu, Ines Osinaga Goseko kantaria, Ken7ko Eñaut Elorrieta eta Maite Arroitauregi *Murseg*o aritu ziren jaialdian. Euskal musikagintzako sortzaile handiak pasatu dira Kantuaren Kantoitik azken hiru urteetan. ■ I.E.




Eñaut Elorrieta (Ken7 taldeko abeslaria) iazko Kantuaren Kantoian zikloan.

Xabier Montoiak mundu oso bat

Kantuaren Kantoia ez duela ezagutzen dio Xabier Montoiak, eta aurretik ez duela honelako ekimen batean parte hartu. Azaroaren 8an, berak hasiko du lau emanaldien segida.

Iazko udazkenean kaleratu zuen *Montoiaren mundu miresgarria* diskoa. Sorkuntzan, beti gauza bera ez egitea dela bere ardura nagusienetakoa esan zuen Montoiak, diskoa aurkeztera etorri zenean Elorrieta. M-ak taldeagaz punka eta elektronika jorratu zituen, eta akustikoan dihardu orain. "Kontzertu akustikoen biluztasunean", oso gustora aritzen dela esan zuen. Ondo mol-datuko da Kantuaren Kantoian.

Azaroaren 8an, 20:00etan



Oholtzara bueltan Josu Zabala

"Nere buruari buruz aritzea ez zait gustatzen, baina egiten dizkidaten galderek erantzungo ditut", esan du Josu Zabala Otxandioko musikariak. Sekula ez du Kantuaren Kantoioak lako emanaldirik egin: "Beste sortzaile batekin musikari buruz jardutea oso gauza interesantea izan daiteke: hori askotan egiten dudana gauza da, baina publikoarentzat ez dut sekula egin".


Berarekin Kantuaren Kantoian jotzera gonbidatu gura ditu lagun sortzailereren batzuk Josu Zabalak. Orain, grabazio batean dihardu lanean, eta datorren astean ekingo dio Platerueneko saioa prestatzeari.

Azaroaren 15ean, 20:00etan



Toño Muro, Balerdi Balerdi barik

Azaroaren 22an, 20:00etan



Oraindik erabaki barik dauka emanaldiko kanta zerrenda Toño Murok, baina dioenez, gustatuko litzaioke "kanta zaharrak eta berriak nahastea".

Bere sorkuntzari buruz berba egitea erraz egiten zaio, hurbileko norbaitekin baldin bada: "Nire ibilbide musikala ezagutzen duen batekin ez zait zaila suertatzen, nire kantetan errepikatu diren estiloak eta ideiak ezagunak dituelako".

Kanta bat zerbait "soila" izan behar dela uste du Balerdi Balerdi taldeko abeslariak, eta talde horregaz 70 eta 80ko hamarkadetan landu zituen doinuak ere eskainiko ditu Plateruenean.

Ruper Ordorika, zirkulua ixteko

Azaroaren 29an, 20:00etan,



Musikarien bandak lagundu barik jardungo du Kantuaren Kantoian Ruper Ordorika musikari oñatiarrak ere. *Hodeien azpian* diskoa aurkeztera etorri zen Ordorika urtarilean Durangoko Plateruenera. Bilboko kafe antzokian abenduaren 22an emango du kontzertua, eta orduan emango du disko berriaren aurkezpen bira amaitutzat.

Baina, aurretik, Durangon jardungo du musika arloko bere ibilbideaz, diskoek, eraginez eta Jonan Hernandez elkarrizketatzaileak proposatuko dizkion bestelako gaiez. Gogoetekin tartekatuta, bere ibilbideko kantak eskainiko dizkie Durangoko entzuleei.

MUSIKA > KONTZERTUAK

El Leon de Oro abesbatza ariko da Hamabostaldian

XXIII. Durangoko Musika Hamabostaldia bihar bertan hasiko da, Asturiasko abesbatzaren emanaldiagaz, eta abenduaren 2an izango da azken saioa

Azaroaren 3an lehenengo kontzertua eta abenduaren 2an azkena. Guztira, lau emanaldi, hilabete iraungo duen hamabostaldian. Durangoko Musika Hamabostaldia aurkeztu duite Bartolome Ertzilla musika eskolan. Asturiasko El León de Oro abesbatza izango da lehenengo gonbidatua, biharkoa. Alfredo Sanz Musika Eskolako zuzendariak esan duenez, Espainia eta Europan ospea hartu duen taldea da asturiarra, eta errepertorio "entretengarri eta anitza" eskainiko duite taldeko 40 kantariak Santanako elizan.

"Europako pianoaren promesa handienetakoa", Judith Jauregi, azaroaren 24an, ariko da

Azaroan beste bi emanaldi egongo dira, kontzertu zikloaren barruan. "Ikusi eta entzuteko gozamina" izango da, Sanzen berbetan, azaroaren 17ko emanaldia: Sonar boskotea ariko da Kurutzasantu museon.



Musikene eskolako formazioa jaso duten bost musikaririk osatzen dute Sonar. Klarinetea, tronpa, zeharkako txirula, fagota eta oboea jotzen dituzte.

"Espainia eta Europako pianoaren promesa handienetakoa da", Judith Jauregi pianista, azaroaren 24an ariko da. Hamabostaldia eskaintzen dituenetik ordaindu beharreko kontzertu bakarra izango da, San Agustin kulturgunean.

Flauta eta piano kontzertu batek itxiko du, abenduaren 2an, Durangoko Musika Hamabostaldia. Claudi Arimany eta Juan Jesus Silguero eta Pedro R. Larrañagak eskainiko dute kontzertu hori. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Ainhua Urien
Ikaslea



Gainditzetik haratago

Irakasten duzuneru, aldi berean erakutsi irakasten duzunaz dudu egiten (José Ortega y Gasset).

Ikasiko dituzu hamaika hizkuntza, irakatsiko dizkizute formula matematikoak; sinestaziko dizute historia bat, txanpon beraren beste alde ezkatutuz. 1492an 'aurkitu' zuten Amerika. Honela esanez pentsa dezakegu horma gainditu eta paradisu legez argiz beteta bisitaratu zela; baina ez digute esaten lehenago ere han bertakoak bizi zirela, hemendik joan eta zapaldu zituztela. Eta adibideen munduan hiru puntu suspentsibo infinitu.

Eslogana baino ez zaio falta lan-merkatura bideratuta dagoen hezkuntza sistemari; memorizatu, ez egin egin behar ez duzun galderarik. Azterketarako buruz ikasita nahikoa izango duzu, bizitzaren joanean titulu batzuk izango dituzu; eta ez du axola ezer ez badakizu, memori-zatu zenuena gogoratzen duzun heinean; gainerakoan antzerkiko txotxongiloa baino ez zara izango. Egungo gizartearen arazo gorena konformismoa da, besterik gabe gauzak irenstea; eta hein handi batean hezkuntzak egiten gaituelako, hortik hasi behar genuke arazoari aurre egiten, ixilik irensten dugun bitartean jango baikaituzte bestela.

Honela pasatzen dira egunak, urteak; informazioa pilatzen besterik gabe, esaten dizkigutenez zalantza egin gabe, (auto)kritikarako momentuen faltan. Zerbait eta letrazko informazioa irakastetik; informazio horren balio, eragin, kausa eta kasuak aztertzea igaro behar dugu, zerbait aldatu nahi badugu behintzat. Ostantzean, eta horrela jarraitzeko desira badugu, segi dezagun izen-abizendun paper zatiak jakintsu izateko armatzat jotzen, idazten eta irakurtzen ere ez dakitenen ezjakintasun aitorza jakitunaren adorea dela pentsatu behar.

Apurka-apurka gure burua nekatuz doa Res-Publikak eta errepublikak, erresumak ahanzi gabe, zer diren gogoratzen; izan zirena ezbaian jarri gabe, beraien eraginak onartuz, beraiengandik orain eta gerorako lezioak ez ikasiz. Finean, pentsatu gabe onartuz eta sinetsiz.

KRONIKA Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

> Amaia Ugalde

Elortza finalurrekoetara, eta Lazkano ere bai seguruenik

Igor Elortzak lehen postua lortu du Sopelako kanporaketan, eta Gorka Lazkanok bigarrena; laugarren postuan amaitu zuen Gari Sarriugartek

Poto bat ere egin zuen arren, Igor Elortza durangarrak josi zituen bertsoak ondoen, eta zuzenean sailkatu da finalurrekoetara. Gorka Lazkano berriztarrak aukera handiak ditu, lortutako puntu kopurua-



gatik. Laugarren izan da Gari Sarriugarte zaldibartarra.

Lazkano bidea zabaldu guran, Elortza egoeren deskribapen eta hitz jokoe-tan dotore, Sarriugarte orekatuta eta ideia polit batzuk botata... Txapelketako laugarren kanporaketan Durangaldeko hiru bertsolariak saio polita egin zuten, bakoitzak bere mailan. Seikoteko errebelazioa Nerea Ibarzabal markina izan zen, ofizioetan erantzun onekin jardun zuen.

"Drogak direla eta erreabilitazio zentroan egon zarete luzaro. Itxi egingo dela jakin duzue gaur". Elortza eta Sarriugartek gai horri erantzun zioten zortziko nagusiko ariketan, eta orduantxe egin zuen pota Elortzak. Dena dela, ideia politak bota zituen, bigarren bertsokoa, esaterako: *sasoi batean hamaika marra, sartuak gu kokazale / baina gizarteak jarten dauz marrak zentro hori da seinale /*

batzuk garaile izendatzen dauz, eta beste batzuk galtzaile".

Lazkano ofiziotan polito ibili zen, umea negarrez eskolan uzten zuen gurasoaren paperetik, eta Sarriugartegaz jardun zuenean parapentean botatzeko zorian zeuden lagun biziren. Lazkano atzeraka ikusita Sarriugartek zirikatatu egin zuen: "Begiak itxi eixuz pistinan moduan".

Kartzelan, faltan igartzen dutenari

"Urteak dira beragaz ez zagozala. Hala ere, bere falta igartzen duzu". Bertsolaritzan maiz gertatzen da; kartzelako aukera bi ematen zituen: norbere azaletik kantatzea edo istorio bat asmatzeko aukera.

Lazkanok amama zenari kantatu zion, hunkituta: "Nonbait entzuten bazagoz, mosu handi bat amama". Elortzak aitita zenari kantatu zion, umetako oroitzapenak polito deskribatuta, batez ere gaixorik zegoenean zelan zaintzen zuten: *Ointxe be termometroa jartzen danean bero / zurekin akordetan naz gaixotzen nazenero*. Sarriugartek istripu baten hildako lagunari kantatu zion, berak ere benetan gertatu aukeratuta: "Nahiago nuke atea zabaldu ta hona jaitsiko balitz".

Azken kanporaketa Zornotzan jokatuko da, azaroaren 4an.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

AZAROAK 2 21:30ean
THE CASUALTIES+ SECRET ARMY+ BAD CO.PROJET+DIRTY BROTHER. 12,5-15 eu

AZAROAK 3 22:30ean
LOKALETIK AT: NARCISSUS+ ZARRAPARRA+TXABOLAKUMEAK.Doan.

AZAROAK 7 19:00etan
9 herrialde, 10 hilabete, 11 bizipen IKER MINGUEZEN ESKUTIK.Doan.

AZAROAK 8 20:00etan
XABIER MONTOIA KANTUAREN KANTOIAN.Doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

PUBLIKOARI GORROTO

Artedrama Euskal Laborategia

Azaroak 11 • 19:00

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

Hitz

liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitliburudenda.com
946 810 776

MUSIKA > JAIALDIA

Band of Friends irlandarrekin hasiko da Elorrioko XXIII. Jazz Blues jaialdia

Elorrioko Ateneoan, Arriolan eta Portalekuan izango dira jaialdiko zortzi kontzertuak, azaroaren 8an hasi eta 25era bitartean

Azaroaren 8ko jam saio batez hasiko da Elorrioko Jazz Blues jaialdiaren XXIII. edizioa, eta azaroaren 25era bitartean beste zazpi kontzertu egongo dira Elorrioko hiru eszenatokitan: Ateneoan, Arriola antzokian eta Portalekua tabernan.

Blues erritmo eta doinuek zabalduko dute Elorrioko Jazz Blues jaialdiaren hogeita hirugarren edizioa: Band Of Friends ariko da, Rory Gallagher musikari irlandarra omentzeko sorturiko taldea. Gallagher gitarristaren "bizitzaren eta musikaren ospakizuna" egiteko sortu zuten proiektua, eta blues musikagaz rocka ere uztartzen du.

Bakarkako proiektua aurkeztuko du Hasier Oleaga bateria-joleak

Jazz doinuak izango dira nagusi hurrengo hiru emanalditan. Tobias Meinhart Quintet-ek joko du, esaterako, azaroaren 16an, Ateneoan. New Yorkeko klubetan goi mailako inprobisazio saioak eskaintzen dituzte, eta Elorrioren etorri berberaren bila ariko dira.

Miguel Salvador eta Hasier Oleaga euskaldunek sorturiko jazz



Rory Gallagher gitarrista irlandarra omentzeko sorturiko Band of Friends taldea.

doinuak ere entzungai izango dira azaroaren 22 eta 23an, hurrenez hurren. Salvador gitarrista lauokote formatuan hurreratuko da Elorrioko Ateneora.

Bestalde, bakarkako proiektua aurkeztuko du, Hasier Oleaga bateria-joleak. Euskal jazzaren bi belaunalditako musikari onene-

kin elkartu da Oleaga *Cantus Cateriva* proiektua aurrera ateratzeko.

Inglateratik etorriko da Dani Wilde, 22an; kalitate handiko blues eta soul kantaria da. 24an, AEBetatik The Holmes Brothers etorriko dira. Sherman eta Wendell Holmes anaiak eta Popsy Dixon dira The Holmes Brothers. Arriolan kontzertu bakarra beraiena izango da: zapatu gauetako rocka eta domeka goizeko elizkizunetako gospelaren nahasketa.

Xabi eta Pettiren emanaldiak itxiko du jaialdia: Ray Charles, Beatles edo Jimi Hendrix lako klasikoen eta Big Sandy, Chris Cacas edo Bill Kirchenen lanen bertsoak eskainiko dituzte. ■ I.E.



DATAK
Azaroaren 8an, Ateneoan Jam Session
Azaroaren 10ean, Ateneoan Band Of Friends
Azaroaren 16an, Ateneoan Tobias Meinhart Quintet
Azaroaren 17an, Ateneoan Dani Wilde
Azaroaren 22an, Ateneoan Miguel Salvador Quartet
Azaroaren 23an, Ateneoan Hasier Oleaga
Azaroaren 24an, Arriolan The Holmes Brothers
Azaroaren 25ean, Portalekuan Xabi eta Petti



HISTORIA >

Adituen bilgune izango da Krimenaren Historia Zentroa

Azaroaren 8an eta 9an, adituen berbaldi, bisita gidatu eta mahai-inguruak egingo dituzte Krimenaren Historia Zentroko jardunaldien hamargarren edizioan. Durangoko Arte eta Historia museoa batuko dira parte-hartzaileak. *Krimenaren eta zigorraren historiarako iturri judizialak: artxiboak eta agiriak* izango da aurtengo gaia.

Mahai-inguruak, bisita gidatuak eta berbaldiak egingo dituzte

Aurten berba hartuko dituzten gaitan adituak diren unibertsitateko irakasle eta doktoreak gonbidatu dituzte, besteak beste, Durangoko jardunaldietan hitzaldiak eskaintzera: Espainia eta Frantziako unibertsitateetako irakasleak eta EHUKo hainbat aditu ere batuko dira Durangoko jardunaldietan. ■ I.E.

ZINEMA >

'¡Vivan las antipodas!' dokumentala, eguenean, Iturrin

Azaroaren 8an, 19:30ean, Elorrioko Iturri kultur etxean izango da *¡Vivas la antipodas! El mundo visto por Victor Kossakovsky* dokumentalaren emanaldia. Victor Kossakovsky errusiarraren lana da *¡Vivan la antipodas!*, nazioarteko zinema jaialdietan ehun sari baino gehiago jaso dituen zuzendariarena.

Munduaren gure ikuspegia hankaz gora ipiniko duten irudiak eskaintzen ditu filmak, fitxan dakarrenez. Gogoetarako galdera planteatzen du: zein litzateke Shanghai hiri txinatarraren eta Argentinako Entre Ríos arteko biderik laburrena? ■ I.E.



**HARPIDETU ZAITEZ IRRIA ALDIZKARIRA
2012KO IRAILAREN 16 BITARTE ETA
OLGETANEKO IKUSKIZUN BONOIA
OPARITUKO DIZUGU**

Ebaki eta bidali edo eraman orri hau zure datuekin
helbide honetara: Barbaro Elkarte, Pinondo Plaza 1,
1go solairua, Durango KODEA: OLGETAN 12

IZENA:

ABIZENA:

E-POSTA:

TELEFONOA:

HERRIA:






Durangaldeak 11 jakingai berri



PEDRO H. SARRIONANDIA
GARAITIK MAROKORA ETA ITZULERA
DURANGO PUDO SER DETROIT
ZORNOTZAKO BATAILA
LA EDAD DE ORO DEL CASERIO VASCO

astola
ikerketa eta historia
DURANGALDEKO URTEKARIA
6.zk 2012 5e

6. alea kalean!
www.gerediaga.com



Astola aldizkariaren seigarren zenbakia prest dago. Durangaldeko historian barrena sakontzeko hamaika lan berri proposatzen ditu. Lanen artean aipagarria da Joseba Sarrionandiaren “Moroak gara behelaino artean?” saiera liburuan agertzen den Pedro Hilarion Sarrionandiari buruzko lana; Marokora egindako bidaia eta itzulera azaltzen duena.

Bestelako lanek ere badute lekua: Durango izeneko automobilaren ibilbide laburra, Elorrioko herriko plazako joan-etorri biziak, Zaldibar herriko alderik ezezagunena, edota Durangaldeaz gogoeta: noraino heltzen da gaur egun Durangaldea? Eskualde-sentimendua bizirik dago gaur egun?

Etxeko hormaren baten eskegita izatea gustatuko litzaizkizukeen argazkiekin hornituta, Gerediaga Elkartek sustatzen duen ikerketa eta historia aldizkaria eskuragai izango da datozen egunetan ohiko dendetan, eta abenduaren 6tik 9ra, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan. 168 orrialdeko aldizkariak iazko prezio berdina izango du: bost euro. Gerediaga Elkarteko bazkideek, baina, 2013. urteko egutegiarekin batera doan eskuratu ahal izango dute.

DURANGO DETROIT?

EGILEA: JUAN A. HERNANDEZ

Durangon automobil fabrika bat eraikitzeko lehen pausuak eman ziren joan den mendeko erdialdean. Duñaiturria y Estancona (DyE) enpresan auto gutxi batzuk ere egin ziren. Baina abentura horrek ez zuen bide luzeagorik izan.



GARAITIK MAROKORA ETA ITZULERA

EGILEA: MOHAMED TAH TAH

Pedro Hilarion Sarrionandiak Garaitik Marokora egindako bidaia eta itzulera ezagutzeko aukera eskaintzen du lan honek. Tangerren, 1905. Urtean, lehenengoz argitaratu zuen *Gramatica de la lengua rifeña* liburua.



ANARKISTAK II. ERREPUBLIKAN

EGILEA: J. A. OROBIO-URRUTIA

Sindikatuak mugimenduak 30eko hamarkadan izan zuen hasiera Durangon. Gehienak behargin gazteak edo beharginen semeak ziren eta alde zaharreen bizi ziren.



ESKUALDE BATEN MILA AURPEGI

EGILEA: NEREA MUJIKKA

Gogoetarako proposamena da lana: Bizirik dago eskualdea gaur egun? Badago eskualde izaeraren sentimendurik? Nork eta zelan ezartzen ditu eskualdeko mugak?



BASERRIEN URREZKO AROA

EGILEA: ALBERTO SANTANA

Durungaldean 300 bat baserri eraiki ziren 1720 eta 1830 urteen artean. Europa osoan zehar, gurean egin ziren moduko eraikinak aurkitzea zaila zen. Guillermo Humboldt bidaiari alemaniarrek horietako batzuk ezagutzeko aukera izan zuten.



DURANGO BIZKAIKO LURRA

EGILEA: IÑAKI GARCIA CAMINO

1212. urtean Alfonso VIII.enak Durangoko lurak eman zizkion On Diego Lopez de Haro Bizkaiko Jaunari, musulmandarren kontrako borroka irabazten lagundu ziola eskertuz.



ZALDIBARKO EKIALDE URRUNA

EGILEA: GAIZKA ZABARTE


Eibartik Ermura gatzozela, asko konturatu ez arren, Zaldibarko ekialdeko auzo ezezagunetako bat dago: Eitzaga. Olaerreak Bentako horma da horren testigu. Eta orain, Astola aldizkariko irakurleak.



KANPOSANTU-ETAKO ARKITEKTURA

EGILEA: A. BARRIO LOZA

Durungaldeko kanposanturik gehienak XIX. Mendearen amaierakoak dira eta euretako batzuk portikodunak, harrizko zein zurezko zutabeekin.



ELORRIOKO PLAZA

EGILEA: JOSE LUIS ARRUABARRENA


Elorrioko Herriko Plaza betidanik izan da elorriarren topaleku. Tradizioz bizitza administratibo eta erlijiosoaren erdigune izateaz gain, bizitza sozialaren arima. Detalle txikietan erreparatuz plazari bisita egin diogu.



ZORNOTZAKO BORROKA

EGILEA: ERREDAKZIO TALDEA

la ez da historiako liburuetan aipatu ere egiten, baina Amorebieta, Etxano eta lurretako mugetan Napoleonen tropa frantsesek espainiarrak gailendu zituzten.



IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

■ Sei hankako mahaia

Dani
Maeztu
Aralar

LAB sindikatuaren jarrera espainiar estatuan CCOO eta UGTk erregistraturiko grebaren aurrean

LAB sindikatuak ez du bat egiten espainiar estatuan PP gobernutik ezartzen ari den politiken inguruan erreferenduma bultzatzeko xedez CCOO eta UGTk deitu duten grebarekin.

Euskal langileak sarri askotan goratu du bere aho-tsa greba eta mobilizazioaren bitartez. Herritarrek aipatu politikak salatu egin dituzte, baita Gasteizko zein Iruñeko gobernuak politika horiei emandako babesa ere, PSOEren gobernuak aplikatu dituen nahiz PPren gobernuak aplikatzean.

Uztailean hartutako erabakiek isla zuzena izan zuten estatuen aurrekontuetan eta irailaren 26an Hego Euskal Herrian eginiko greba orokorraren bitartez euskal jendarteak berriro errefusatu zituen aipatu politikak.

Zalantzarik gabe, arrazoiak soberan daude mobilizazio gehiago deitzeko, greba orokorrak barne. Baina egungo egoera irauli ahal izateko beharrezkoa da aldaketa politiko eta sozialaren prozesu eraginkor bat, eta aldarrikapen zabal hori bultzatuko duten apustu politiko eta sindikal sendoak falta dira.


Estatuko aurrekontuak gaur arte ezagututako erasorik latzena dira. Eta irailaren 26an eman genduen erantzunarekin ezin gara konformatu. Erasoa ez dira amaitu. Aurrekontu hauek ez dira benetakoak, egoeraren degradazio etengabeak erreforma gero eta gogorragoak ekarriko ditu. Murrizketen bidez gero eta murrizketa gehiago eskatzen ditu. Bide horretan gaurko egoerak ez du irtenbiderik, eta espainiar estatuak hartu duen bideari loturik jarraitzea itzelezko galga eta traba da zentzu guztietan.

2009ko greba orokorrarekin hasitako bidean berresten da LAB sindikatua. Inposatzen ari zaizkigun erreforma kapitalista basatiaren aurrean badago alternatiba. Euskal Herrian badugu behar adina baliabide eredu ekonomiko eta sozial berri baten alde egiteko, lanaren eta aberastasunaren benetako banaketaren bidez pertsona guztien bizi kalitate duina bermatuko duen ereduaren alde egiteko. Antolakuntza eta mobilizazio gaitasun nahikoa daukagu kapitalari eta bere zerbitzura dauden gobernuen boterea borrokatzeko. Ordua da gure esparruan urrats berriak egiteko eta, horretarako, orain artekoak baino askoz sendoagoak diren akordio sindikal eta sozialak premiazkoak dira.

Dagokigun erantzukizun zatia geure gain hartzen dugu, jakina, eta euskal eremu sozial eta sindikalean akordio estrategikoak bultzatzeko gure konpromisoa berresten dugu.

Durangaldeko LAB sindikatua

Klik batean @



Durangar batek argazki hau atera eta ondorengo testu honegaz bidali du twitterretik: "Badirudi edozein aitzakia bilatzen dela txosnen aurka joateko. Zuhaitz hau ez da ebaki txosnak jartzeko, ardaxkak moztu zaizkio, ziurrenik bere osasunerako eta gure segurtasunerako. Jende horri eskatuko nioke sumintasan bera adieraztea naturaren aurkako kalte atzerazinak salatuzko (Durangaldean hainbat adibide ditugu). Bide batez, doala herritar batzuen esker ona, txosnetan musu truk lan egiten duzuenoi, herriari eta herritarrei, autokudeaketan oinarrituta, egiten diozuen ekarpen sozialagatik".

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta
astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

Adinean gora noala konturatu naiz bihamuneko ajeak luzeagoak egiten zaizkidala. Baita pasa berri ditugun hauteskunde onorengo ajea ere, oraindik, gogoetak egiten jarraitzen baitut. Zutabea erabiliko dut nire hausnarketa plazaratzeko, baina, lasai, ez dut hemen botorik eskatuko, hau ez baita lekua botoa eskatzeko ibiltzeko.

Abertzale bezala, EAEn izango dugun Legebiltzarraren argazki berria gustatzen zait. 75 legebiltzarkidetik 48 (EAJren 27ak eta EH Bilduren 21ak) gara burujabetzaren aldekoak. Baina burujabetza politiko eta ekonomikoaren aldeko apustua garbia izan behar da. Atzerapausoa eta iruzurra izango litzateke Autonomia Estatutuaren kompetentziak garatzearen aldeko saiakera antzua egitea. Harago joan behar gara, Estatutua gainditzea da burujabetzaren aldeko apustu egokiena.

Ezkerzale bezala, sentsazio gazi-gozoa dut. Hauteskunde kanpaina bi eredu kontrajarri gura izan ditugu: EAJ, PSE eta PPk ordezkatzeko duten betiko eredu; eta EH Bilduk eta beste zenbait alderdik aldarrikatu dugun aldaketa, fiskalitatean, azpiegitura erraldoietan, banku pribatuetan, osasun eta hezkuntzaren pribatizazioan, eta abar. Hori guztiak berdinduz jarraitzearen aldekoak irabazi dute, alegia, politika egiteko modua aldatu gura ez dutenek edo garapen eredu aldatu gura ez dutenek. Baliteke autokritika guk geuk egin behar izatea, ziur baikaude gizariek ez duela politika egiteko modu zaharretan sinesten.

Edozelan ere, urriaren 21etik aurrera, Eusko Legebiltzarrean bagara 21 legebiltzarkide beste eredu sozioekonomikoa eraikitzen hasteko. Uste dut kalean ere gogo hori ere ernatu dela eta gehiengo bihurtzen ari dela. EAJren ezkerretara badago esparru zabala, aniztasunean aberatsa, aldaketaren aldekoa. Hori lortzeko, ezkerreko esparruak behar du XXI mendeko ezker ekosozialista eraldatzailea antolatzea. Ongietorriak zuek!

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2012ko azaroaren 2a
10. urtea - 477 zk.

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua: Itziar Belar.

Administrazioa: Miren Abasolo.

Publizitatea: Goretzi Alonso,

Amaia Huarte, Itxaso Altuna,

Jone Alberdi.

Erredakzioa: Aitziber Basauri,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia,

Amaia Ugalde, Ane Elordi.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Zuzentzailea: Ekaitz Goienetxea.

Argazkilariak: Kepa Aginako,

Zaldua Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

@anbotokirola

KIROLAK >



Agus Ruiz Larringan, Bizkaiko Txirrindularitza Federazioko lehendakaria.

FEDERAZIOKO KARGUAK

ZUZENDARITZA BATZORDEA

Lehendakaria:

- Agus Ruiz Larringan

Lehendakariordea:

- Javier Cuervo

Idazkaria:

- Jokin Bilbao

Diruzaina:

- Oskar Iglesias

Gainerako kideak:

- Joseba Gorostiza, Ales Salvador, Haitz Larrinaga, Manuel Gonzalez eta Luis Ponce De Leon

behar bada horietan gehiago sakondu. Hedabideek ere badute euren erantzukizuna.

Bizkaian emakumezko txirrindulari gazteen maila ona dago.

Klubetatik lan handia egiten da. Ez dira hedabideetan asko irriten, baina beharrezko lana da, norbaitek egin behar duena. Baina lanean jarraitzeko laguntza behar dute: giza baliabideak, ekonomikoak... Bestela, begira zer gertatzen den; emakumeetan zein gizonetan atzerititik fitxatzen dituzte txirrindulariak. Gazteen mailako klubetan musutruk aritzen dira. Dena dela, nire ustez, sarritan ez da diru edo material falta arazo nagusia, horiek ere asko laguntzen duten arren. Esango nuke, errekonozimendua behar dutela, baina ez gurasoen aldetik bakarrik, gizarte mailako errekonozimendua baino.

“Ez dut uste Euskaltelek derrigor egon behar duenik UCI World Tourrean”

Euskaltel-Euskadik hartu duen norabideari buruz zer iritzi duzu?

Ez zait gustatzen. Diotenez UCI World Tourrean sartzeko puntuak behar zituztelako hartu dute norabide berria. Hor sartzeko erabaki puntuala bada justifikagarria izan daiteke, baina hori izango bada urteroko politika ez zait gustatzen. Dena dela, ez dut uste Euskaltel-Euskadik derrigor egon behar duenik UCI World Tourrean. Euskal txirrindulariek egindako lanagaz Tourrean, Giroan edo beste edondon parte hartzeko hautagaitza aurkezteko nahiko argumentu bazutela uste dut. Beste talde batzuek lortu dute Euskaltelek baino *caché* eta oihartzun mediatiko gutxiago izanda: AG2Rk, esaterako. Euskaltelek zalez betetzen ditu Pirinioak edo Alpeak, horietako asko kamiseta naranjatzita. ■ J. D.

“Txirrindularitza gaztetxoan aisialdi aukera bihur dadin saiatzen gara”

Agus Ruiz Larringan iurretarrak bigarren legegintzaldia hasi du Bizkaiko Txirrindularitza Federazioko lehendakari. 80 batzarkidetatik 63k eman zuten botoa eta horietarik aldeko 51boto jaso zituen Ruiz de Larringanek

Pertsonalki zelakoak izan dira lehenengo lau urteak?

Une onak eta txarrak egoten dira. Erantzukizunaren pisua nabaritzen da, begirik bildu ezinik zabilzan gauak eta abar. Baina legegintzaldia amaitu eta lehendakaria aukeratzeko bozketan gehiengoak zure alde egitea pozgarria da. Beti daude ikuspuntu ezberdinak, baina nik denentzat lan egingo nuela adierazi nuen. Norbere printzipioekin, baina denen iritziak entzunda.

Aurreko legegintzaldiaz zein balorazio egiten duzu?

Lehenengo legegintzaldiko helburu nagusien artean pistako ziklismoa eta txirrindularitza eskolak indartzea zeuden. Pista asko indartu dugu. Eskolei dagokionez, klubekin hartueman ona izan dugu, baina kontuan hartu behar da gaur egungo kirol eskaintza orain hogeiturokoak baino askoz handiagoa dela. Horregatik, arlo horretan

ekin eta ekin egin behar da, ez dago lo hartzerik.

Harrobiari begira zer lan egin duzue?

Gura asmoa txirrindularitza ikastetxetara ere ahalik eta gehien zabaltzea da, gorputz hezkuntzako urteroko programan sartzeko. Izan ere, txirrindularitza modu askotara praktikatu daiteke, bide asko daude. Zelanbait txirrindularitza apurka gaztetxoan aisialdirako aukera bihur dadin saiatzen gara.

Federazioak berak zer ekintza egiten du ikastetxei begira?

laz hastapen ikastaroak ematen hasi ginen Bizkaiko hamalau ikastetxetan. Aurten beste batzuk bisitatzen ari gara. Durangaldeari dagokionez, iaz Durangoko Landako ikastetxean eta Otxandio Mainondon egon ginen. Aurtengo egutegian berriro sartu dugu Otxandio, iaz interes handia erakutsi zutelako. Otxandion txirrindularitza eskola

federatu bat sortzea hausnartzen ari gara. Ea lortzen dugun.

Horrez gainera, haurtxoen kategorian errepideko lasterketak antolatu gura ditugu. Normalean, industriguneetako zirkuituetan egiten dira eta oso lauak izaten dira. Kadeteetara pasatzen direnean aldaketa gogorra egiten zaie, ez daudelako aldapetara ohituta, ez igotzen eta ez jaisten. Bide hori leuntzeko errepideko dozena erdi lasterketa antolatu gura dizkiegu.

Pistako txirrindularitza zelan indartu duzue?

Pistan ohiko egutegiari eutsi diogu eta, horrez gainera, Euskadiko Federaziotik pistara zuzendutako euskal torneo bat sortu dezaten lortu dugu. Durangaldeko elkarte gehienek erabiltzen dute Berrizko belodromoa, lehiatzeko ez bada teknifikatzeko. Hala ere, klub batzuen partetik badago halako errezelo bat

“Otxandion txirrindularitza eskola federatu bat sortzea hausnartzen ari gara”

pistarekiko. Belodromoa toki aprosa da txirrindularien teknika eta taktika hobetzeko; entrenamendu egokiekin errepideko txirrindulariek izan ohi dituzten gabeziak hobetzeko balio du. Hori da Bizkaiko klub denei txertatu gura diegun ideia.

Emakumeen txirrindularitzari dagokionez, Eneritz Iturriagak adierazi zuen gazte mailetatik nagusietarako urratsa bereziki gaxta izaten dela.

Emakumeen txirrindularitzan etapa denak dira gaxkak. Kadeteetatik gazteetara salto handia dago. Gazteetatik *bestera*, nik berba horregaz deitzen diot emakumeetan dugun amateur mailako profesionalismo horri, ba, gazteetatik *bestera* salto ikaragarria dago. Gizonetan salto hori hobeto egituratuta dago, ez da hain gogorra. Emakumeak gazteen mailatik Espainiako onenekin lehiatzera pasatzen dira bat-batean. Pausu hori leuntzeko mekanismoak falta dira. Ekonomikoki ere indartu beharra dago. Baina ez naiz txirrindularitzari buruz bakarrik ari, oro har emakumeen kirolari buruz baino. Jaurlaritzatik erabaki gehiago hartu ahal dira emakumeen kirola sustatzeko. Legeak badaude, baina legeak betearazi egin behar dira eta

Urien Europako txapelkun izan daiteke Montmellon

Europako Radical Master txapelketako azken lasterketan ariko da; liderrarengandik bost puntura baino ez dago pilotu abadiñarra



Aurten zazpi zirkuituan aritu da Urien, eta Montmello da aurretik ezagutzen zuen bakarra.

Europako Radical Master txapelketan parte hartzen duen lehenengo aldiaren txapelkun izateko aukerak ditu Igor Urien pilotu abadiñarrak. Radical SR8 autoak buruhauste tekniko bat baino gehiago eman dio denboraldian zehar, baina hala ere, asteburuan Kataluniako Montmello zirkuituan jokatu den azkenengo lasterketara irabazle lehiarako bizi-bizirik heldu da.

Terrence Woodward eta Ross Kaiser dira sailkapeneko liderrak, 119na puntugaz. Igor Urien hirugarren dago, 114 puntugaz. Laugarren sailkatua urrun daukate, beraz hiru lehenengo artean dago txapela.

Landaburu eta Azpiri Olazarretik kanpora daude

Igor Azpiri eta Jon Landaburu elorriarra Olazar pilotu txapelketatik kanpora geratu dira, Beitiaren eta Galarzaren aurka 10-22 galdu ostean. Final zortzirenetan kanporatu dituzte.

Joan zen asteko eguenean Zaldibarko pilotalekuan jokatu-tako partiduan, Galarza galdakoztarrak bizkarra erakutsi zion Landabururi atzeko koadroetan. Aurrean, Igor Azpirik ez zuen bere maila erakutsi; saiatu zen, baina ez zuen ohi moduan asmatu. Atzeko koadroetako nagusitasunak eraginda Beitia usanso-loarrak aukera gehiago izan zuen aurrean eta Azpirik baino erosoago jokatu zuen. ■ J. D.

Bere arerio bien aurretik amaitzen badu, berea da txapelketa

Montmellon lasterketa bana jokatu dituzte zapatuan eta domekan. Lasterketa bakoitzeko irabazleak 20 puntu batuko ditu; bigarrenak 15 eta hirugarrenak 11. Beraz, Urienek badauki bere arerio bien aurretik amaitzen badu berea dela txapelketa. Sailkapena hain estu dagoenez, beste konbinazio

batzuk ere balekoak izan ahal dira. Gainera, kontuan hartu behar da pole postua eta lasterketako itzuli azkarra lortzen dituenak puntu extra bana jasoko dituela.

Orain arteko zirkuituetan sekula aritu gabea zen Urien. Montmellokoa, ordea, ondo ezagutzen du. Horrek dezente errazten dio aurre lana. Baliteke asteburuan euria egitea, baina Urieni ez dio ardura. Aurkariek auto hobea dutenez, euriak abantaila teknologikoak berdindu egiten dituela dio. Bere Radical SR8ari konponketak egin dizkiote eta lasterketa biak amaitzeko moduan dela uste dute. ■ J. D.

Calleja aurrera eta Urrejola kanpora pilotan

Cafes Baque pilotu txapelketako lau partidu jokatu zituzten eguaztenean Abadiñoko pilotalekuan. Kadeteetan Calleja zaldibartarra jokatu barik sailkatu zen hurrengo faserako. Elordiren kontra jokatu behar zuen, baina lesio baten ondorioz lurreta pilotu eskolagaz jokatzeko duen mallabitarrak ezin izan zuen kantxaratu. Gazteetan Urrejola otxandiarrak galdu egin zuen lbarrondoren kontra eta txapelketatik kanpora geratu da.

Beste partidu biak Arandiak eta Calvok irabazi zituzten, kadeteetan eta gazteetan, hurrenez hurren. ■ J. D.

Frontenisean onenak izan dira Ogiza eta Jose

Mallabiko areto futbola taldeak antolatu duen frontenis torneoan jaun eta jabe izan da Ogiza-Jose bikotea eta beraientzako izan da garaikurra.

Finalerdietan Mallabiko bikotea menderatu zuten alde handiarekin: Isam eta Luken Pradera anaiei 25-7 irabazi zieten. Finalean Orobiok eta Varelak osatutako bikotea izan zuten aurrez aurre joan zen zapatuan Mallabiko pilotalekuan. Bikote horrek lan gehiago eman zien, baina markagailuak argi adierazten du Ogizak eta Josek agindu zutela partiduko zatirik handienean: 25-13. ■ J. D.

ADITUAREN TXOKOA

Kepa Arroitauregi
Pilota teknikaria



One Wall euskalduntzen

Orain bederatzi urte gertatu zen bezala, aurten ere Munduko One Wall txapelketan protagonismo berezia izan du Euskal Selekzioak. Bai, Euskal Selekzioak. Gure kirolean (euskal pilotu) lortu ezin dugun errekonozimendua ematen digu pilotu irlandarraren barneko horma bakarreko jokamoldeak. Askorentzat ezezaguna den arren, milaka dira mundu zabalean kirol hau praktikatzen dutenak eta onenetakoak Dublinen izan dira, urriaren 11tik 21era bitartean. Artean, sei euskaldun, bi neska mallabiar tarteko; Amaia Araiztegi eta Itsaso Pradera.

Amerikarren nagusitza nabarmena bada ere oraindik, euskal pilotariek eman dute jendea gozarazteko argudiorik. Europarren artean emaitza onenen jabe egin da gure taldea maila nagusietan. Geurek erakutsitako jokoa gainera oso erakargarria egiten zaie denei, ezberdina baita. Erasoan zein defentsan azkar, mugimendu bariatate handia eta legezko portaera.

Emaitzei jagokenez baliotsua izan da Iker Gordon sope-loztarrak lortutako urrezko domina. Baita meritu handikoa ere, 15 urterekin, Amaia Araiztegi mallabiarrek emakumezkoen maila gorenean lortutako zilarra. Eta lan bikainaren seinale, taldekako laugarren postua erdietsi du euskal selekzioak. Guztia, talde giro bikainean eta txapelketak eragindako aldrebeskeria guztiei aurre eginez; antolakuntzak eragindako partidu atzerapenak, amerikarren galtzen ez jakiteak eragindako liskarrak eta tentsioak, araudi aplikazio ezberdinak.... Baina denei aurre egiteko: euskaldunak.

Aspuru eta Gonzalez aurrez aurre trinketean

Gaur Tornosolo Kopako final zortzirenetan neurtuko dira abadiñarra eta berriztarra

Tornosolo Kopak modalitateko pilotaririk onenetakoak batuko ditu azaroaren 30era arteko barikuetan Abadiñoko trinketean. Lehenengo jardunaldian Asier Aspuru abadiñarrak 40-22 menderatu zuen Lier Gandiaga lekeitiarra. Inhar Ugarte algortarrak ere aurrera egin zuen Migeltxo arabarrari irabazita: 40-27.

Gaur, 19:00etan, final zortzirenetako lehenengo parti-

duak jokatu dute Asier Aspuru abadiñarrak eta Mikel Gonzalez berriztarrek. Mikel Rafael eta Iker Gordonek ere final laurdenetarako txartela gura dute.

Datorren barikuan Ander Antxia eta Rober Uriarte abadiñarrek ekingo diote txapelketari. Irabazleek Ipar Euskal Herriko hiru pilotari zain izango dituzte final laurdenetan: Bonetbelche, Lambert eta Jeannots. ■ J. D.



Ander Antxiak final zortzirenetan hasiko du kopa. K. Aginako

Gurasoen eta jokalarien artean gidatzen dute Elorrio futbol kluba

Erreleborrik agertu ez zenez, guraso eta jokalariek osatu zuten zuzendaritza batzorde berria

Udan Javier Agirrek, aurreko presidentea, Elorrio futbol kluba uzteko asmoa iragarri zuenean, jokalarien gurasoek eta jokalariek eurek hartu zuten futbol klubaren gidaritza. Orain, astelehen guztietan batzartzen dira astean asteko kontuak argitzeko eta kluba osatzen duten sei taldeek etorkizunean hartu beharreko bideari buruz eztaba datzeko.

Denek zekiten Javier Agirreraren agintaldiak iraungitze data zuela. Hasieran, urte birako hartu zuen klubaren gidaritza, baina ordezkorik aurkitu ez eta beste urte bitan jarraitzeko borondatea erakutsi zuen, zuzendaritza batzorde berri batez. Agirrek utzi zuenean, emakumeen eta gizonen futbol taldeetako hiruna jokalariek kudeaketa batzorde bat eratu

zuten, kluba desagertu ez zedin. Handik gutxira orain klubeko presidente den Jose Andres Tabera batu zitzaion. Tabera gazteen mailako jokalaria baten aita da. Kluba gidatzeko pisu osoa jokalariek bere gain hartzea ez zitzaion komenigarria zenik iruditzen eta beste guraso batzuk konbentzitu zituen zuzendaritza batzordera batu zitezela. Gaur egun, hamahiru lagunek osatzen

dute zuzendaritza batzordea. Aipatutako gurasoei eta jokalariei, Gontzal Arana eta Agustin Fernandez entrenatzaileak gehitu behar zaizkie, horiek ere laguntzeko beti prest.

Tabera presidentea zuzendaritza osatzen duten kideen lanerako grina azpimarratu du eta bertan jokalariek ere egotea aberasgarria dela uste du: "Kanpotik gauza batzuk ikusten dira, baina beste batzuk ez. Jokalariek barruko ikuspegia ematen digute. Esaterako, eurek abisatu dute gazteen mailetako taldeak jokalaria barik geratzeko dagoen



Gizonen talde nagusiak Ohorezko mailan jokatzen du. Kepa Aginako

Elorrio futbol kluba sei taldek osatzen dute gaur egun

arriskuaz. Antza, sona handiagoko taldeetara joaten dira eskola kiroltik talde federaturako pausua ematean. Kezkagarria da eta egoera hori zelan bideratu hausnartzen gabiltza".

Elorrioko futbol kluba sei taldek osatzen dute. Nagusiei dagokionez, Ohorezko mailan eta Hirugarren erregionalean gizonen talde bana ditu, eta Lehenengo erregionalean emakumeen talde bat. Kadete eta gazte mailako talde bana ere badituzte eta haur-kategoriakoa Elorrioko Kirol Taldeagaz batera daramate. ■ J. D.

Ariznabarreta eta Unzuetak irabazi dute Urkiolako maratoi erdia

Durangaldeko Maratoi Erdia jokatu zuten joan zen domekan Urkiolako parke naturalean eta Oier Ariznabarreta eta Maite Unzueta nabarmendu ziren. Ariznabarreta durangarrak 21 kilometroko lasterketa irabazi zuen gizonetan 1:19ko denboragaz. 11 kilometroko ibilbide laburrean, Maite Unzueta izan zen irabazlea (52 minutuan).

Ariznabarretak iaz ere garaipena lortu zuen maratoi erdian

Ariznabarreta durangarrak iaz ere garaipena lortu zuen Durangaldeko Maratoi Erdian 1:16ko markarekin. Aurten minutu batzuk gehiago behar izan ditu lasterketa burutzeko, hala ere, garaipena argia izan zen, batez ere ibilbidearen bigarren zatian hartutako abantailari esker. ■ A.E. / J. D.

Sapuberrik eta Dantzarik lidertza dute jokoan derbian

Bost jardunaldiren ostean, oraindik galtzea zer den ez dakiten talde bi neurtuko dira

Areto futboleko Lehenengo erregionaleko igoera postu biak hartze dituzten Sapuberri eta Dantzari derbian neurtuko dira bihar lurretan.

Sapuberrik orain arteko bost partiduak irabazi ditu eta liderra da. Joan zen asteburuan, 4-0 menderatu zuten Abadiño-ko Gaztetxiek beste derbi bate-

an. Dantzarik ere ez daki galtzea zer den: lau garaipen eta berdinketa bat da iurretarren orain arteko balantzea.

Areto futboleko beste derbi bat ere jokatuko dute asteburuan. Euskal ligan, Kurutzia Ikastola eta Abadiño-ko Lagun elkarren aurka ariko dira zapatu arratsaldean. ■ J. D.

Mendi bizikleta ibilaldia antolatu dute lurretan domekan

Lurreta Txirindulari Elkarteak kofradietatik zeharreko mendi bizikleta martxaren 24. aldia antolatuko du domekan. Aita San Migel plazan ipini dute hitzordua, 09:30ean.

Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, ibilaldia hasi baino ordu bete lehenagotik aurrera. Lizentzia dutenentzako bost euro izango da izen-ematea eta lizentziarik ez dutenentzako 17 euro.

Txirindulari elkarteak 42 kilometroko ibilbidea prestatu du. Kirola eta aisialdia lotu gura dituzte ibilaldian. Gainera, jakinarazi dutenez, aurtengo aldirako ibilbide berria prestatu dute. ■ J. D.

Zulatu bik hamar onenen artean atera dute Murgoitio

Azken denboraldietan Munduko Kopako probetan lehenengo hamarren artean sailkatzea izan da Egoitz Murgoitio abadiñarren helburua (Hirumet taldea). Joan zen asteburuan, Txekiar Errepublikan helburua gauzatzeko zorian egon zen, baina zorteak ez zion lagundu. Zulatu bik lehenengo hamar postuen artean kanpo utzi zuten. 15. amaitzea lortu zuen.

Lasai hasi zuen lasterketa Murgoitio abadiñarrak, erorketa bat saihesteko asmoz, iaz lehendabiziko bihurtunean erori zen-eta. Lasterketa aurrera joan ahala, erritmoa bizkortu zuen eta lasterketa buruarekin distantziak laburtuz joan zen. Hotzak eta elurrak zirkuitua astundu egin zuten eta baldintza horietan gustura sentitu zuen. Asteburuan Superprestigio txapelketako lidertza defendatu behar du, Laudion zapatuan eta Muskizen domekan. ■ A.E. / J. D.

Agenda

PILOTA

OLAZAR TXAPELKETA

Lau t'erdian:

- Larrañaga - Artola
Binaka:

- Jaka - Peñas /
Urlona - Irusta

Azaroaren 8an, 21:30ean,

Zaldibarko pilotalekuan

CAFES BAQUE

Kadeteetan:

- Mendibe - Espinal

- Etxebarria - Aburuza

Gazteetan:

- Garalo - Larrañaga

- Pujana - Untxalo

Azaroaren 7an, 19:00etan,

lurretako pilotalekuan

FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Elorrio-

Somorostro

Domekan, 17:00etan,

Eleizalden

LEHENENGO ERREGIONALA

(emakumeak)

Iurretako-

Sestaotarra

Zapatuan, 18:15ean,

Larrakozelain

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Elorrioko Buskantza -

Eraso Alara

Zapatuan, 18:00etan,

Elorrioko kiroldegian

Kurutzia -

Abadiño-ko Lagun

Zapatuan, 17:30ean, Landako

kiroldegian

MAILA GORENA

Sasikoa B -

Ibaizabal

Zapatuan, 19:15ean,

Landako kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA

Gu Lagunak-Iturriondo

Zurbaranbarri

Zapatuan, 16:00etan,

Landako kiroldegian

Abadiño-ko Gaztetxiek -

Beseka

Zapatuan, 17:00etan,

Traña-Matienako kiroldegian

Dantzari -

Sapuberri

Zapatuan, 17:30ean, lurretako

Lanbide Heziketa Institutuan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Elorrioko C -

Lagun Onak B

Zapatuan, 15:05ean, Elorrioko

udal kiroldegian

SASKIBALOA

LEHENENGO ERREGIONALA

Anbotopeko -

Salleko

Zapatuan, 18:00etan, Tabirako

saskibaloia kantuan

MENDIA

BIZIKLETA MARTXA

Kofradien arteko

marxa lurretan.

Domekan 09:30ean lurretako

plazan. Izen-ematea egunean

bertan egin daiteke. Lizentziadunek 5 euro ordaindu behar

dute eta lizentziarik ez

dutenek 17 euro.

AISIALDIA >

auzorik auzo



XVI. mendean eraikitako San Kristobal ermita.



Mendiolako auzuneko baserri multzoa.



Mendiolan, Larringaneko haize errota, 1723an eraiki zutena.

Untzillaitzen magalean, hamaika toki interesgarri gordetzen ditu Mendiolak

Abadiñoko Mendiola auzoan 1723an eraikitako haize errota bisitatu daiteke, besteak beste; urte hartan Bizkaian sikateari aurre egiteko eraikitako bost haize errotetako bat da Mendiolakoa

A badiñoko Mendiola auzoa Untzillaitz mendien magalean kokatuta dago. Auzoak hainbat interesgune ditu, oinezko ibilaldi baten bidez ezagutu daitezkeenak: Larringaneko haize errota eta sasoi bateko auzo eskola, besteak beste.

Abadiñoko San Vicente fabrika gora dagoen bide erromatarrek Mendiolarako norabidean ipiniko du ibiltaria. Asfaltoko bidera heltzean, eskumarantza hartu eta ehundaka metro batzuk aurrera eginda Olondo edaritegira helduko da. Atzealdean pilotaleku librea eta sasoi bateko auzo eskola aurkitu daitezke, gaur egun Errekaxo auzo elkarteak erabiltzen dutena.

Auzo elkartearen parean bidea bitan banatzen da. Eskuma aldetik gorantz joanda, metro gutxira eta muino baten gainean, XVI. mendean eraikitako San Kristobal ermita dago. Uztaileko jaietan meza egoten da bertan eta udaberritik aurrera baita hainbat ezkontza ere. Bide beretik aurrera eginda Larringaneko haize errotara helduko da ibiltaria. Gaur egun ez du helizerik, baina dorre itxura ematen dion harrizko egitura oso egoera onean kontserbatzen da. Zortzi metro garaiera duen haize errota 1723an eraiki

zuten. Bizkaian urte hartan sikate handia bizi izan zuten, eta bost haize errota eraiki zituzten. Horietako bat da Mendiolan aurkitu daitekeena.

Errekaxo auzo elkartera jaitsi eta oraingoan ezkerreko bidea hartuta, Mendiola auzunera zuzenduko da ibiltaria. Errenazimendu sasoi baserri multzo interesgarria aurki daiteke auzune horretan. Hango baserrien hegaletako edo atzealdeko arkuek garbi erakusten dute errenazimendu sasoi eskolara.



Aintzinako auzo eskola; gaur egun Errekaxo auzo elkarteak erabiltzen du.

Olondo edaritegitik aurrera joanda, Sagasta auzorako bidegurutzea atzean utzi eta ez dira urrun geratzen Atxarte inguruak. Sasoi bateko harrobietatik gertu, Euskal Herriko eskalada gune ezagunenetakoa dago hango harkaitzetan.

Adituentzako zein hasiberrientzako, zailtasun maila askotako eskalada bideak irekita daude eta bideak ondo aukeratzean dago gakoa. Inguru hartan dago Bolinkoba ere, bere sasoi Joxe Migel Barandiaran antropologoak ikertu zuena.

Muino baten gainean XVI. mendean eraikitako ermita dago. Uztaileko jaietan meza egoten da

Mendiola auzunean errenazimendu sasoi baserri multzo interesgarria aurki daiteke

Atxarten, sasoi bateko harrobietatik gertu Euskal Herriko eskalada gune ezagunenetakoa dago

Gremioen gida

ELEKTRONIKA

URBASA ELEKTRONIKA
TELEKOMUNIKAZIOAK

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13 • Durango
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80
urbasa@urbasatel.com
www.urbasatel.com

Panasonic

Telebís
Instalazioak
Ongia

AROTZERIA


EGUIA S.L.

AROZTEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com



DEKORAZIOA

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen eta era askotariko altzairuen lakadura.
- Pinturak eta pinturak apaingarria.
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - Berriz
Tel.: 94 682 41 43 - 658 75 84 21
Fax: 94 682 48 95 - info@jaioarnizatuak.com



GARBIKETAK

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfombra

Goietia, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

Material elektrikoaren salmenta

PUJANA
ELECTRICIDAD

Urkiola 2, behea - 48200 DURANGO - Tel.: 605 705 818

ITURGINTZA

Solaguren kalea 3 - ABADIÑO
Tel.: 94 661 44 74
Faxa: 94 621 53 74
urtiaga.sl@terra.es

urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA



LORAZAINTZA

Jardines
Patxi
Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

ARGIZTATZE TEKNIKAK

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com




Ubide
iturgintza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza



anboto.iragarkilaburrak.com

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Asturias. Bi pisuko etxea eta lur saila salgai. Tel.: 649-40 26 22

Cuzcurrieta (Errioxa). 3 logela, garajea eta igerilekua eta lorategia komunitarioak. 100.000euro. 692-99 43 51

Berriz. Olakueta auzoan. 3 logela handi, balkoiarekin lotutako egongela eta sukaldia. Komun bi. Igogailua eta ganbara. Tel.: 685724690 / 675712369

Berriz. 3 logela, 2 komun, sukaldia berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. 647 77 73 92.

Durango. 86m²-ko etxebizitza, Murueta Torre 7n. 2 logela, 2 komun, sukaldia eskegitokiarekin, ganbara eta garajea. 270.000 euro. Tel.: 688 64 26 43 (Jaione).

Durango. Askatasun etorbidean. 83m² erabilgarri, 3 logela, 2 komun, 2 garaje handi, trasteroa, igogailua garajearino. Tel.: 652 75 54 46

Elorrio. Duplex etxebizitza, 78m² erabilgarri (90 m eraikiak). Egongela nasaia, logela bi eta bainugela bi. Errekakale, 10 zgn solairua. Tel.: 605 72 29 45

Elorrio. Erdigunean estrena gabeko etxea salgai. 77m², 3 logela, 2 bainu eta garajea, altzariek. Prezioa, 230.000euro. 634 45 72 01

Garai. Oarbeaskoa baserria salgai. 10.000 m²-ko lursaila. Garaiko san migel auzoa, 6. 8.500 m²-ko belardi soroa, nahiko laua. 200m²ko barata, frutalak. Nekazal turismoa edo nekazaritza ekologikorako aproposa. Erreabilitazioa behar du. Bifamiliarra egiteko baimena. Tel.: 639833489 jo.amantegi@gmail.com.

Iurreta. Pisu bat salgai Arriaundin. 66.000 euro. Tel.: 685 72 80 42.

Mallabia. Pisu eguzkitsua, 3 logela handi, 2 komun, terraza, sukaldia eta egongela. 112m² azalera erakitua. Tel.: 695 77 31 41

Otxandio. Apartamentua salgai. Trastelekua eta igogailuarekin. Tel.: 675.717.283

EROSI

Durango. Pisu bat erosiko nuke. 3 logelako pisua edo 80m² baino gehiagokoa bi badiu. Gehienez 180.000euro. Deitu 676985501 telefonora.

ERRENTAN EMAN

Donostia. Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen dut antiguon. 2 planta dauzka. 550 euro. Tel.: 609 48 11 24

Iurreta. Iurretan logela alokagai. 200 euro, gastuak aparte. Tel.: 633 23 38 48

Zaldibar. Erdialdean, guztiz berriztua, jantzi barik, 2 logela. Telefona 660 45 87 56

ERRENTAN HARTU

Durango. Bikotekide arduratsua logela bat alokatu nahi du Durangon. Ekonomikoa. Tel.: 632 37 28 87

Elorrio. Pisu baten bila nabil

alokatzeko, 3 logelarekin eta altzariekin. Tel.: 94 658 21 91

OPORRETAO ETXEA

Bastida. Torre - Otxandi urbanizazio pribatuan. Urbanizazio igerilekua eta saski-baloi pista ditu. 2 logela, bainugela, sukaldia eta egongela, guztiz apainduta. Urte osoan eskuragarri. Hamabostaldika eta hilabeteka alokatzen da. 620629245

